


**hh**  
**hik hasi**

**197**

**20 urte euskal hezkuntza ospatuz**



**IKASKIDE PROIEKTUA • NOEMI BENEITO • 0-3 FORMAZIOA: LH REGGIO EMILIAN**  
**• AMURRIOKO SAN LUCAS REY IKASTETXEA • DIWAN ESKOLAK**  
**• IÑAKI EIZMENDI: TALDEKATZEAK IKASTETXEETAN • ANABEL ARRAIZA**

## BI KOBAZULO

UXUE ALBERDI • ANTON OLARIAGA

Anik bi kobazuloen ipuina kontatzeko eskatu dio amonari. Istoriak dio Hodei eta Argi bata iparraldera begira dagoen kobazulo batean eta bestea hegoaldera begira dagoen beste batean bizi zirela bizkarra emanda.



## AMA GAIZTOAREN IPUINA

ANTXIÑE MENDIZABAL • ARITZ EIGUREN

Bi ahizpen arteko elkarriketa umoretsua zein dramatikoa, ama gaiztorik ba ote dagoen hizpide dutela. Ipuin klasikoetako amen ontasuna zalantzan jartzen hasi eta egiazko ama baten maitasuna zertan den gogoeta egiten amaitzeko.

8

URTETIK  
GORA

## BIHOTZA LO DAUKAT, ETA ZER?

ALAINE AGIRRE • JOKIN MITXELENA

Martinak bihotza lo dauka: bera ere ez da gauza bere bihotzaren taupadak entzuteko, haren zurrungak baino ez ditu entzuten. Eta horregatik, Martina bera erdi-lo dago askotan, ametsen munduan.



EZ NAIZ  
BARAZKIJALEA

ETA ZER?

## EZ NAIZ BARAZKIJALEA, ETA ZER?

TXANI RODRIGUEZ • IOSU MITXELENA

Mikel barazkijalea da, gurasoek, bere hobe beharrez, horrela erabakita. Egun batean, ordea, altita Xalbadorren baserrira joanda, aurreneko aldiz dastatuko du Mikelek txorixo puska bat eta handik aurrera gauzak aldrebesten hasiko zaizkie.

# aurkibidea



**10**  
gaia

## IKASKIDE PROIEKTUA

MUko Huhezi fakultateak 2009-2010 ikasturtean jarri zuen martxan Ikaskide proiektua. Elkarrekin eta kooperazioan ikastea du oinarri, eta ikasleak bost kompetentzia nagusitan trebatzea du helburu. Orain arte kooperatibek hartu dute parte proiektuan, orain ikastetxe gehiagotara zabaldu nahi dute.



**18**  
elkarrizketa

## NOEMI BENEITO

Urteak daramatza psikomotrizista eta hezitzaile argentinarrak arretoa goiztiarraren arloan lanean, bereziki, behar bereziak dituzten haurrekin. Emmi Piklerren ideiei jarraiki, haurraren garapenerako hiru gakoak inizatiba, autonomia eta askatasuna direla dio; berdin garuneko lesioak, arazo neuromuskularrak, *down* sindromea... dituzten haurren kasuan ere.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

**IKASKIDE PROIEKTUA**, elkarrekin gehiago eta hobeto ikasten delako

18 elkarrizketa

**NOEMI BENEITO**, psikomotrizista argentinarra

26 LOMCEri ez! Gure hezkuntza eraiki!

29 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa  
Lehen Hezkuntzara jauzia Reggio Emilian

32 esperientzia

Amurrioko San Lucas Rey ikastetxea

34 ekarpena

Diwan eskolak

36 galdeidazue

Ikastetxeetan ama-hizkuntza kontuan hartu behar al da taldekatzeak egiteko garaian? Iñaki Eizmendi

42 Atzeko atetik

Anabel Arraiza. Antzezlea

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez, Matilde Sainz eta Amaia Vazquez. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-03-26). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.





## **0 - 3 urte bitarteko hezitzaileentzako prestakuntza (3. promozioa)**

Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakondu asmoz, 240 ordutik gorako bi urteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean hik hasi-k. Hiru oinarri nagusi izango ditu formazio horrek:

- **Emmi Pikler** (koordinatzailea: Juanjo QUINTELA)
- **Loris MALAGUZZI** (koordinatzailea: Alfredo HOYUELOS)
- **Formakuntza pertsonala** (koordinatzailea: Alvaro BEÑARAN)

Ikaslerro bakoitzean, gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza.

**Informazio osoa eta izena emateko aukera, apirilaren 20tik aurrera**

**[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)** helbidean

# editoriala

## apirila

### *Banakoa eta taldea karta-jokoan*



**Banakoa eta taldea beti ari dira karta-jokoan. Horixe gertatzen da ikasgeletan ere: irakaslea ikasle bakoitzari arreta pertsonalizatua ematen eta bakoitzaren berezitasunei lekua egiten saiatzen da, baina modu kolektiboan.**

“Ni”-a eta “Gu”-a uztartzea, banakoa eta kolektibitatea osagarri egitea, ikaskuntza pertsonalizatua eta taldekoa bateratzea... Horixe da hezkuntzaren erronketako bat, norbanakoaren eta taldearen arteko oreka lortzea. Askotan, ordea, ez da erraza izaten erdigunea topatzea eta irakasleek ekilibristarenak egin behar izaten dituzte ikasleei arreta pertsonalizatua eskaintzeko taldearen baitan.

Aldizkari hau izan daiteke “Ni”-aren eta “Gu”-aren arteko elkar-elikatze horren erakusle. Haur bakoitzarengan jartzen du fokua Noemi Beneito psikomotrizista argentinarrek elkarriketa nagusian. Iniziatiba, autonomia eta askatasuna dira haren ustez pertsonaren garapenerako hiru gakoak. Hezitzaileak haur bakoitza begiratzen, entzuten eta haren nahiak zein premiak identifikatzen jakin behar duela

dio, eta haur bakoitza bestearengandik diferentea denez, ez duela balio guztientzat errezeta berbera erabiltzeak.

Gaian jorratutako Ikaskide Proiektuak, bestalde, taldearen balioan jartzen du indarra. Tesi nagusiak dioten bezala, elkarrekin gehiago eta hobeto ikasten baita. Elkarmendekotasun positiboaz hitz egiten du egitasmoak; horrek esan nahi du, bere helburuak lortzeko besteen beharra daukala ikasleak. Proiektua martxan duten Lea Artibai ikastetxeko irakasleen arabera, Ikaskide Proiektuak ikasleen eta irakasleen artean kolaborazioaren kultura zabaltzeko balio izan die. Ikasleek ulertu dute lehiaren bidez pertsona bakarrak irabazten duela, eta kooperazioaren bidez, aldiz, pertsona guztiak.

Batzuetan “Ni”-an jartzen dugu arreta osoa, “Gu”-a desagertzearaino. Beste batzuetan kontrakoa egiten dugu

eta “Gu”-ak gain hartzen dio “Ni”-ari. Badirudi aldizkari honetan ere bi muturretara jo dugula. Baina, Beneitok arreta gizabanako bakoitzarengan jartzen duen arren, eta Ikaskide Proiektuak komunitatean, bataren eta bestearen filosofia nahiz diskurtsoa ez dira antagonikoak, elkarren osagarri baizik. Izan ere, banakoa eta taldea beti ari dira karta-jokoan. Hartu-eman horretan dago “Ni”-aren eta gizartearen arteko loturaren muina. Eta horixe gertatzen da ikasgeletan ere: irakaslea ikasle bakoitzari arreta pertsonalizatua ematen eta bakoitzaren berezitasunei lekua egiten saiatzen da, baina modu kolektiboan. Izan ere, taldeak baditu balio propioak eta gelako espazio kolektibo soziala izango da, ziurrenik, dibertsitateari erantzuteko tokirik aproposena. Norbanakoaren eta komunitatearen arteko oreka bilatzea da gakoa.

# hizpide

## Irriak zabaltzen lagundu duten 25 lagunentzat saria

Irrien Lagunak Elkarteak 25 eragile, udal eta pertsonari *Irriazalesaria* eman die, sorreratik Irrien Lagunak proiektuari emandako babesagatik oro har, baina bereziki haurrentzako euskarazko *Irria* aldizkaria hedatzen laguntzeagatik. Hain zuzen ere, haurrentzako bertako ereduak eta erreferentziak sortzea izan du helburu Irrien Lagunak Elkarteak, “euskaratik, geure balioetatik eta auzolanetik” sortuak hain zuzen. Pasaiaiko Albaola itsas faktorian egin zuten ekitaldia, eta bertan bildu ziren saridunetako hainbat. Horien artean daude, besteak beste, Ondarroako, Arbizuko eta Lezoko udalak, Aramaiko edo Baztango ikastetxeak.

## ‘Maria Goikoak batbirulau!’ aplikazio bilakatu dute

Anjel Lertxundi idazleak eta Antton Olariaga marrazkilariak osatutako *Maria Goikoak batbirulau!* haurrentzako liburuan oinarrituta, sakelakoan izateko aplikazioa sortu berri du Galtzagorri elkarteak. Puzzleak, memoria jokoak, hitz jolasak, abestiak, zazpi ezberdintasunak eta makina bat jolas batu dituzte sakelekorako aplikazio berrian, denak liburuan jasotako istorioen bueltan. Aplikazioa sakelekoan eskuratu ahal izateko, nahitaez paperezko liburua eduki behar da.



## Deredua ez da Nafarroa osoan izango datorren ikasturtean, eremu gehiagotara zabaltzeko “astirik ez dagoelako”

Euskararen Legea aldatzearen alde bozkatu zuen Nafarroako Parlamentuak joan den otsailaren 10eko bilkuran, eta, horren ondorioz, besteak beste, D eredua Nafarroa osoan ikastetxe publikoetara zabaltzeko bidea ireki zen, baita eremu ez-euskalduna deituriko zonaldeko ikastetxeetara ere. Bada, Nafarroako Gobernuak martxoaren hasieran adierazi zuen ez dela horrelakorik gertatuko datorren ikasturtean, “teknikoki ez duelako astirik ematen D eredua ikastetxe gehiagotara zabaltzeko”. Zonalde ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan oraingoz ez dute gaiaren inguruko inolako jakinarazpenik jaso Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren aldetik, baina “aurrematrikulazioan, aplikazio informatikoak uzten duen eremuak soilik marka daitezke; gurean, A eta G ereduetan eta PAI programan”, adierazi dio *Berria* egunkariari Taffallako Marques de la Real Defensa ikastetxeko zuzendariak, gurasoek D eredua aukeratzeko biderik ez dutela izan argituz. Dena dela, aurrematrikulazio garaian hainbat eskaera jaso dute zonalde ez-euskalduneko ikastetxe horietan D ereduari aritzeko.

Bestalde, zonalde mistoa deiturikoan ere, zeinetan D eredua egon badagoen, Nafarroako Gobernua euskarazko gelak osatzeko oztopoak jartzen ari dela salatu dute. Abartzuko eskolako zuzendariaren esanetan, 10 haur aurrematrikulatu dira D ereduari hurrengo ikasturterako, baina Nafarroako Hezkuntza Sailak taldea osatzeko gutxienez 15 eskaera behar direla adierazi du; eskolako zuzendariaren ustez, “bada-kite ezin dela kopuru horretara iritsi, herri txikia da eta ez dago hainbeste matrikula”. Abartzuko ikasleek Lizarrara joan beharko dute, beraz, euskaraz ikasteko.

# izan da

Iturria:  
Berria egunkaria

## Donostiako Udalak antolatuta, 4 mahai-ingurutan aztertu dute hezkuntzak gizartearen eraikuntzan duen garrantzia

*Hezkuntza ereduaren garrantzia gizartearen eraikuntzan* izenburupean, bi eguneko jardunaldia egin dute martxoan Donostiako San Telmo museoan; Donostiako Udalak antolatu zuen, Hik Hasi eta Donostia Hiri Hezitzailea egitasmoen eta San Telmo Museoaren beraren laguntzarekin.

Jardunaldiaren lehen egunean, martxoaren 24an, politikariak bildu zituzten mahaiaren bueltan hezkuntzaz hitz egiteko. *Argia* aldizkariko Mikel Garcia kazetariak dinamizatuta, EH-Bilduko Juanjo Agirrezabala, EAJko Jone Berriozabal eta PSE-EEren Gizpuzkoako Hezkuntza idazkari Lui Garcia aritu ziren hizlari. Hurrengo egunean, goizeko saioan sindikatuen txanda izan zen. Hik Hasi-ren koordinatzaile Joxe Mari Auzmendik gidatuta, egun hezkuntzaren alorrean ditugun indarguneak, ahulguneak eta etorkizuneko erronkak argitu zituzten LAB sindikatu-ko Aitziber Perezek, ELAko Xabier Irastorzak eta STEE-EILASeko Aitor Idigo-

rasek.

Egun horretan bertan bi mahai-inguru izan ziren arratsaldean. Lehenengoan, euskal herri eta bailaretan sortu diren Hezkuntza plataformak eta horiek biltzen dituen Hezkuntza Plataformen Topagunea ezagutzeko aukera izan zen. HIK HASIko kazetari Amaia Mendizabalek dinamizaturik, kezka eta borroka-puntu nagusiak aurkeztu zituzten Aitor Fernandez de Pinedo, Aiaraldeko Plataformako kide eta irakasleak; Samuel Pasandin, plataforma bereko kide eta ikasleak; eta Aitor Otañok, Oiartzungo Elexalde herri eskola-ko irakasle eta gurasoak.

Jardunaldiarekin amaitzeko, hezkuntza-eragileak bildu ziren San Telmon. MUko HUEZIKo irakasle Mariam Bilbatuak gidatu zuen saioa eta bere galderei erantzun zieten Ikastolen Elkarteko lehendakari Koldo Tellituk, Sortzen-Ikasbatuz elkarteko Begoña Bitorikak eta Ikasle Abertzaleetako Amaia Mugaruzak.



## Guraso taldea, eskoletako elikaduraz kezkatuta

EAEko ikastetxe publikoetako jangelak catering zerbitzuen bidez hornitzen dira gaur egun. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak 4 urtetik behin lehiaketa publiko bidez kontratatzen du catering zerbitzua, 2 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat 92.000 menu kudeatzeko. Bada EHIGE guraso-elkartea kezkatuta agertu da, eskola publikoko gurasoek “ezin dutelako aukeratu zer jango duten haien seme-alabek, ezta jakien jatorria ere”. Egoera horren aurrean, gurasoek eskatu dute ikastetxeek beren jantokia kudeatu ahal izatea eta, horren bidez, elikadura osasuntsua, gertukoa eta bidezkoa bermatzea haurrei.

## 800 sinadura LOMCEren LH3ko probaren aurka

Espainiako Gobernuaren LOMCE hezkuntza-legeak zehaztutako bidetik, ikasturte honetan Nafarroako Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek diagnostiko-proba egin beharko dute. Nafarroako Gobernuari neurri hori bertan behera uzteko eskatuz, 800 gurasoren sinadurak bildu ditu LOMCEri ezplataformak. “Proba bakar batean ateratzen den emaitzari ematen zaio garrantzia guztia eta ikasketa-prozesu osoari eta ebaluaketa jarraituari garrantzia kentzen zaio”, salatu dute.

# hizpide

## Finlandiako hezkuntza-eredua ezagutu ahalko da Hik Hasik apirilaren 24 eta 25erako antolatu dituen jardunaldietan

Hik Hasi-ren 20. urteurrena dela probestuz, eta duela bi urte Francesco Tonucci pedagogo eta "Haurren hiria" egitasmoaren sortzailearekin hasitako bideari jarraipena emateko, "II. Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldiak egingo dira apirilaren 24an eta 25ean Donostiako Kursaal jauregian. Ikasle bakoitza bere osotasunean batetik, eta gelako dibertsitatea bestetik, kontuan hartzen dituzten Finlandiako, Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat esperientzia emango dira ezagutzera.

Apirilaren 24ean, heziketa ardatz duen herria gaitzat hartuta, Finlandiako hezkuntza-politika ezagutu ahalko da lehenik Leo Pahkinen eskutik; ondoren, Koldo Saratxaga mintzatuko da parte-hartzeak eta partekatzeak gizarte-ereduan duen garrantziaz; horrez gain, Herri-hezitzailearen sarea, Gaztematika proiektua eta Euskal Herriko beste hainbat esperientzia aurkeztuko dira.

Apirilaren 25ean, berriz, herrira begiratzen duen eskola ardatz izanik, haurra bere osotasunean hezteko Finlandiako sistemaz mintzatuko da Leo Pahkin; gero, eskolako elkarbizitzaren (dibertsitate funtzionala, kulturantzatasuna, genero aniztasuna...) gainean hitz egingo du Jone Miren Hernandezek eta ikasleen artean harreman onak sustatzeko Harremonak programaren berri emango dute Arremanitz taldeko kideek. Eta amaitzeko, Bartzelonako El Martinet eskolaren esperientzia azalduko dute bertako bi irakaslek.

Irakasleei eta hezitzaileei ez ezik, udaletako zinegotziei eta teknikariei (parte-hartzea, berdintasuna, euskara, gazteria, aniztasuna, kultura, lurralde antolamendua...), gurasoei, eta heziketan interesa duen edonori daude zuzenduta jardunaldiak.

Matrikulazio epea irekita dago jada eta [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean eman daiteke izena apirilaren 17a bitartean. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus) helbidera edota deitu 943 371408 telefono zenbakira.

## Haur Hezkuntzako hezitzaileei bideratutako tailerrak antolatu ditu Easo politeknikoak

Apirilaren 28, 29 eta 30an, eta maiatzaren 5, 6 eta 7an Haur Hezkuntzako profesionalei bideratutako tailerrak egingo ditu Easo politeknikoak, 17:30etik 20:30era. Besteak beste ondoko gaiak landuko dira: haur elebidunen garapena, etxekotzea eta familia haur-eskolan, genero berdintasuna, ikas komunitateak Haur Hezkuntzan, estimulazio goiztiarra, hizkuntzen garapena edota autismoa.

Eusko Jaurlaritzak homologatutako tailerrak dira, 30 orduren balio akademikoarekin. Izena emateko epea apirilaren 17ra arte dago zabalik eta izena emateko [www.easo.eus](http://www.easo.eus) webgunean dagoen eskaera orria bete behar da. Informazio gehiago behar izanez gero [gizartezerbiztuak@ieaso.eus](mailto:gizartezerbiztuak@ieaso.eus) helbidera idatz daiteke.





# izango da

## 0-3 zikloko hezitzaileei bideraturiko formazioan matrikula egiteko epea zabalik da



0-3 urte bitarteko haurrekin lanean aritzen diren hezitzaileei zuzenduriko bi urteko formazioa eskainiko du Hik Hasik, hirugarren aldiz.

Formazioak hiru oinarri nagusi izango ditu:

- Emmi Pikler. Juanjo Quintela psikologoak koordinatuko du.
- Loriz Malaguzzi. Alfredo Hoyuelos UPNAko irakasleak koordinatuko du.
- Formazio pertsonala. Alvaro Beñaran psikomotrizistak koordinatuko du.

Ikaslerro bakoitzean, gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza.

Matrikulazioa egiteko epea apirilaren 20an irekiko da eta interesa dutenek maiatzaren 3 arte edukiko dute izena emateko aukera [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunearen bidez.

## XVI. Hik Hasi Udako Topaketak: uztailaren 1, 2 eta 3an Donostian eta 6, 7 eta 8an Bilbon

Hik Hasik eta EHUK antolatzen dituzten Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak uztailaren 1, 2 eta 3an egingo dira Donostian eta uztailaren 6, 7 eta 8an Bilbon. Aurten, lehen aldiz, ahalik eta jende gehienarengana iristeko helburuarekin eta Hik Hasiren 20. urteurrena dela probestuz, Udako Topaketak Bizkaian ere eskaintzea erabaki da.

Donostiako topaketak Pedagogia Fakultatean izango dira 9:00etatik 14:00etara; Bilbokoak berriz, Leioako Irakasle Eskolan, ordu berean. Arratsaldeetan, bestalde, tailerrak eta saio libreak jarriko dira aukeran.

Informazio osoa maiatzean argitaratuko da *bikhasi* aldizkariarekin batera banatuko den liburuxkan eta [www.bikhasi.eus](http://www.bikhasi.eus) webgunean. Izenematea maiatza osoan egiteko aukera izango da.

## Hiri hezitzaileei buruzko ikastaroa antolatu du Hezkidek

Apirilaren 12an, 13an eta 14ean hiri hezitzaileei buruko ikastaroa egingo da Donostian, hiriak hezitzeko dituen aukerak aztertu eta eztabaidatzeko. Informazio gehiagorako [www.hezkide.org](http://www.hezkide.org) webgunea kontsulta daiteke.

# GAIA

## IKASKIDE proiektua

*Elkarrekin gehiago eta hobeto ikasten delako*





## Formazio kooperatiboa sustatzeko premia akuilu

**Ikaskidetza eta kompetentzien garapena dira Ikaskide Proiektuko bi zutabeak. Batetik, elkarrekin eta kooperazioan ikastea du oinarri. Bestetik, berriz, ikasleak bost kompetentzia nagusitan trebatzea: elkarrekin ikastea, elkarrekin bizitzen eta lan egiten ikastea, ikasten ikastea, komunikatzen ikastea eta ekintzaitasuna.**

**Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak 2009-2010 ikasturtean jarri zuen martxan proiektua, hezkuntza-kooperatibetan balio kooperatiboak bultzatzeko. Orain arte egitasmoan parte hartu duten ikastetxe guztiak kooperatibak badira ere, Huheziko aholkulariek proiektua zabaldu nahi dute, berrikuntza prozesu batean sartuta dagoen edozein ikastetxerentzat egokia izan daitekeela uste baitute.**

# G



Mariam Bilbatua eta Ana Usabiaga Ikaskide Proiektuaren aholkularietako bi.

Ikasle guztien ikaste-prozesua hobetzeko helburua duen berrikuntza proiektua da Ikaskide. Curriculumera eraldatu eta etengabeko hobekuntza bidean hezi nahi du eskola. Ikaskidetza ardatz hartuta, eskola *Ikaste Komunitate Profesional Eraginkor* bihurtzen du proiektu honek. Irakasleen formazioan eta praktikan eragiteaz gain, eskolako kulturaren, organizazioaren, komunikazioaren eta kudeaketan eragin nahi du.

ERKIDE Hezkuntza Kooperatiben Federazioak bere ikastetxeetan ikaskidetza bultzatzearen garrantzia azpimarratu zuen 2007ko Dekretuei egindako ekarpenetan, formazio kooperatiboa sustatzeko beharra identifikatu baitzuen. Hezkuntza kooperatibetan kooperazioa bultzatzeko proposamena paperean egin beharrean, zergatik ez praktikan jarri? Erronka horri erantzun nahian, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak Erkide-rekin egindako hitzarmen baten bidez, 2009-2010 ikasturtean Ikaskide Proiektua martxan jarri zen, abiapuntu gisa zeharkako bi kompetentziaren garapena hartuta: "ikasten ikastea" eta "elkarrekin ikastea".

Harrezkero 17 ikastetxetan ezarri dira Ikaskide Taldeak. Gaur egun, 12 ikastetxek hartzen dute parte proiektuan:

Assa Ikastola (Lapuebla de Labarca), Orereta Ikastola, Inmakulada Ikastetxea (Tolosa), Salvatore Mitxelena Ikastola (Zarautz), Bihotz Gaztea (Santurtzi), Elgoibarko Ikastola, Ibaizabal Ikastola (Durango), Lea Artibai Ikastetxea (Markina), Ikasberri Ikastola (Azpeitia), Audio Ikastola, Itxaropena Ikastola (Trapagaran) eta Asti Leku Ikastola (Portugalete). Eskolaren arabera egokitzen da proiektua: batzuek maila jakin batean abiatzea erabaki dute; beste batzuek, berriz, ziklo osoan ezartzea. Orain arte proiektuan sartu diren ikastetxe guztiak kooperatibak badira ere, Huhezi fakultateko adituek proiektua zabaldu nahi dute, berrikuntza prozesu batean sarturik dagoen edozein ikastetxerentzat egokia izan daitekeela uste baitute.

Ikaskide proiektuak, izenak berak irudikatzen duen moduan, ikaskidetza du oinarri, hau da, elkarrekin eta kooperazioan ikastea. Eskolaren eta irakasleen errealitatetik abiatuta diseinatzen den prozesua da eta kompetentzietan hezten ditu ikasleak. Eskolako egituraren eta funtzionamenduaren oinarria Praktika Komunitatea da: ardura, arazo multzo bat edo gai batekiko pasioa partekatzen duten pertsonak osatzen dute Praktika Komunitatea eta beraien arte-

# Ikaskide proiektua



ko jarraikako interakzioari esker beraien esperientzia eta jakintza areagotzen da, proiektuaren berri emateko Huheziko kideek eginiko txostenaren arabera. “Helburu komun bat izanik, elkarren arteko konpromiso indartsua, parte-hartze arduratsua eta hizkuntza bateratu batekin, esanahi berrien adostasunetara iristen dira etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatuz”.

Baina nola eraikitzen da Ikaskide Proiektua eskoletariko bakoitzean? Mariam Bilbatua eta Ana Usabiaga Huheziko kideek eta Ikaskide Proiektuaren arduradunek azaldu bezala, lehenik proiektuaren atzean dagoen filosofia ulertu behar da. Abiapuntua da ikasle guztiak hobeto eta gehiago ikastea, hau da, pertsonak garapen osasungarria izateko duten eskubidea bermatzea: “Horretarako sistematikoki konpetentzia konkretu batzuk landu behar ditugu, eta horrek garamatza ulertzera ikasleak, ikas dezan, modu konkretu batean sentitu behar dela, bestela ez baitu ikasiko. Memorizatu dezake edo produkzio bat aurrera eraman dezake, baina ikasi ez du egingo. Maiz, gure susmoa da beharrezatik ikasten dugula, baina hori ez da horrela. Ez dugu beharrezatik ikasten. Ondo gaudenean soilik ikasten dugu, eta irakasleek hori ikusi eta bizi egin behar dute gero

ikasleei emanahalizateko. Marko aldaketa bat dago egiten dugunaren atzean”, argitzen du Usabiagak.

Hasieran arreta gelan jarri zuten, baina segituan konturatu ziren horrekin ez zela nahikoa, eta esperientzia iraunkorra izan zedin irakasleria formatzeko moduak ere aldatu behar zela. Izan ere, kideetan aritzen diren ikasleak lortzeko, kideetan jarduten duten irakasleak behar dira. Eta esperientzia denboran iraunkorra izan dadin, eskola horrek hainbat egitura eta egiteko-era zehatz beharko ditu: “Iraunkorra izateko, gure ustez, partekatua izan behar dute proiektuari dagozkion printzipioak, baita ikastetxearen egiturari berari eta filosofia osoari dagozkionak ere”. Eta horixe deitzen diote *Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorra*: ikasleek ikastea hobetze aldera, etengabe ekiten duen eskola autonomoari, hain zuzen.

Ikaskide Proiektuan sarturik dauden irakasleek badituzte hainbat bereizgarri. Horietako bat da irakaslearen artean kideetan aritzen direla eta horrek esan nahi du gelan egiten duten horretaz elkarrekin hausnartzen dutela: “Hori eginahalizateko hizkuntza bera eduki behar dute irakasleek, eskola printzipioak argi izan behar dituzte, kideetza harreman bat izan behar dute”.

## Aldaketarik handiena, irakasleen jarretan

Ikaskide Proiektuak berrikuntza dakar konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-marko batera eramaten duela eskola, eta horrek, aldi berean, ikasleetan zentratutako eredu bati egiten diolako erreferentzia. Bilbatuak eta Usabiagak adierazitako eran, kontua ez da konpetentziak ezagutzea edota identifikatzea, baizik eta irakaslearen jarduna bera aldatzea, baita irakaslearekin erlazioaturiko egitura akademikoak aldatzea ere: “Gauza ez da egitura edo sekuentzia bat zein teknika bilduma bat ezagutzea; ez da formazio isolatu bat ere, baizik eta norbere jardunarekin eta ikaslea bizitzeko moduarekin erlazioatuta dagoen ikaste-prozesu bat da”. Horrexegatik, Ikaskidek ez du ikastetxean txertatuko den beste proiektu bat gehiago izan nahi; xedea da irakaslearen galbaketatik pasea izatea, hausnarketa bat eragitea eta egunero jardunera eraldaketa ekarriko duen proiektu iraunkorra izatea.

Hala, lau urteko prozesua diseinatu dute Huheziko adituek ikastetxeekin elkarlanean. Jomuga da, laugarren urterako zentroa autonomoki bere beharraz asetzeko gai izatea. Proiektua



diseinatzeko, baina, eskola bakoitzaren errealiterara egokitzen dira eta irakasleek dagoeneko egiten duten horretatik abiatzen dira. Huheziko aholkulariekin egiten dituzten saioetan, ikasleek geletan biziko duten ikaste esperimentzia berberak bizitzen dituzte irakasleek: “Guk esaten badugu ikasleek kideztan ikasten dutela, testuinguru erreal batean, elkarrekin eginez, emozionatuta daudenean, elkar beharrezkoak direnean, erabakiak hartzen dituztenean... ezaugarri horiek guztiak irakasleek ere gure saioetan bizi egin behar dituzte. Gelara eramango duten hura lehenik gurekin bizitzeko aukera daukate eta egiten duten horretatik doaz eraikitzen aldatu nahi duten hura”.

Ikaskide Proiektuan parte hartu duen irakasle batek baino gehiagok esan du, prozesu horren bidez ikasleak beste modu batera ikusten hasi direla; lehen ikasle mota batzuk soilik ikusten zizutela, eta orain ikasle guztiengan arreta jartzen hasi direla: “Esan dezakegu hori ez dela berrikuntza, oso oinarritzako kontua dela, baina askotan berrikuntza proiektuetan barneraturik dauden irakasleak igual zentratzen dira gelaren antolaketan, metodologian... baina ez dute aldatzen ikasleak ikusteko modua. Ikaskide Proiektua ikaskidetzaren prozesuetan eta konpetentzien garapenean oinarritzen bada ere, nire ustez, perspektiba historikotik begiraturik, aldaketarik inportanteena irakasleen jarreretan ikusten dut, bai elkarren arteko lanari dagokionez, bai gela ikusten moduari begira”, dio Bilbatuak.

Usabiagak gaineratzen duenez, berrikuntza etorriko da eskola batean modu autonomoan egunerokoari aurre egiteko erronkari heltzen diotenean. Horretarako, irakasleen artean hizkuntza bateratua eduki behar dutela eta begirada, printzipio eta helmuga batera-



tuak izan behar dituztela erantzen du. “Nahiz eta konpetentziak dekretuz aspalditik sartu ziren, praktikaren aldaketa ez da horren nabarmena izan. Horregatik, guk badakigu Ikaskide Proiektuarekin ere ez dela gauetik goizera aldatuko gelan egiten dutena. Ez direla bat-batean hasiko gauza oso bereziak egiten, baizik eta hasiko direla triste dagoen haur horri edota iritsi ezinean dabilen ikasle horri erantzun bat eman nahian. Eta hortik dator berrikuntza. Eskola modura nahi baldin badugu gure ikasle denek ikastea, nola lor dezakegu hori gaur egungo errealitatean? Ikaskide Proiektua kalitatezko hezikuntzari erantzuteko bidea dela iruditzen zaigu”.

### Testuinguru erreal, konplexu eta funtzionalak

Ikaskide Taldeen bidez konpetentziak garatzea da proiektuaren xedeetako bat. Konpetentziak garatzeko, era berean, ezinbestekoa da ikasleek esperimentziak bizitzea eta horretarako testuinguru egokiak behar dituzte. Usabiagak esplikaturako eran, ikaste-tes-

tinguruak erreal, konplexu eta funtzionala izan behar du. Ikastetxe bakoitzaren egoeraren eta etaparen arabera, testuinguru horiek proiektuen, tailerren edota arazoaren ebazpeneko ariketen bidez egitura daitezke. Baina proiektua, edo tailerra edo arazoaren ebazpena aitzakia izango da ikaskidetzaren prozesu bat martxan jartzeko: “Izan daiteke matematika tailer bat, non arazoaren ebazpena modu kooperatiboan egiten duten, edota izan daiteke literatura tailer bat nobelak taldean sortzeko, edota farmazia baten irekiera prestatzea nahiz enpresa bat sortzea. Formatu oso desberdinak daude, baina normalki egiturak oso konplexuak izan ohi dira”, zehazten du Bilbatuak.

### Ebaluazioaren garrantzia

Era askotara egiten dute ebaluazio-prozesua Ikaskide Proiektuaren barnean, ikastetxearen eta etaparen arabera. Baina Huheziko aholkulariek bultzatzen duten ereduaren, oro har, bi ezaugarri izaten dituzte kontuan: batetik, norbanako moduan ikastea, hau da, ikasleak euren prozesuak autoerregulatzea;

# Ikaskide proiektua

eta bestetik, ikaskideen laguntzaz ikaslea. Horrexegatik, prozesuetan etengabe elkarren artean ebaluatzeko tresnak sortzen dituzte. Ez dira soilik edukien ebaluazioarekin loturiko tresnak, kompetentzien eta elkarlanaren ebaluazioarekin erlasionaturiko erremintak ere bai. Adibide baten bidez azaltzen du Bilbatuak: “Momenturen batean taldekideen artean egin dezakete hausnarketa, eta hor ikusi ea taldekide bakoitzak zer aportatzen dion taldeari eta zer hobetu beharko lukeen bere ekarpena eraginkorragoa izateko. Horrelakoak etengabe egiten dituzte, eta guk horrela ulertzen dugu ebaluazioa, hausnarketa moduan, hutsuneak eta indarguneak identifikatzeko tresna gisara”.

Ikastetxe eta irakasle bakoitzak erabakitzen du zer eta nola ebaluatu, baina Ikaskide Proiektuarekin gauza bat aldatzen da: ikasleak ere hasieratik daki zein irizpideren arabera izango den ebaluatua: “Ikasleek hastapenetik dakite zer ebaluatuko zaien eta nola kalifikatuko diren. Hori irakasleen kasuan ere oso interesgarria da, hasieratik pentsatu behar baitute zer, zergatik eta nola ebaluatu. Sarri, diskurtsoan hitzak txertatzen ditugu edota hainbat egite-erak aldatu, baina ebaluazioa iristen denean betiko moduan kalifikatzen dugu. Aldiz, ebaluazio-irizpideak hasieratik ikasleekin partekatzeko obligazioa baldin badaukagu, hausnarketa, zentzu eta koherentzia handiagoz planteatuko dugu ebaluazioa, horrek hasieratik garrantzitsua zer den hausnartzera eramango baikaitu. Gauza da, ikasleek argi dutela irakasleak zer kalifikatzen duen, eta, gainera, erremintak dituztela eurak non dauden eta nola hobetu dezaketen jakiteko. Horri deitzen diogu autoerregulazioa. Beraz, kasu horretan, irakaslea ez da epaitzaile, baizik eta laguntzaile”.

## Kompetentzietan trebatuz

Ikaskidetzan, hau da, besteekin elkarlanean ikasiz hainbat kompetentzia garatzea lortzen dute ikasleek, Ikaskide Proiektua definitzen duen txostenaren arabera:

**1) Elkarrekin ikastea:** elkarlanerako kompetentzia sustatzen da Ikaskide Taldearen bitartez. Elkarrekin ikasteak bizikidetzari begira duen garrantzia azpimarratzen du kompetentzia honek. Izan ere, ikaste prozesuen inguruan garatzen dira eskolako esperientzia gehienak eta esperientzia horiek hainbat gauzatarako aukera ematen dute: elkar ulertzeko, laguntzeko eta gatazkak ebazteko bideak esperimendatzeko eta modu sistematikoan lantzeko.

**2) Elkarrekin bizitzen eta lan egiten ikastea:** ikaskidetzaren kulturak eta balioketako kompetentzia hau garatzen laguntzen dute hainbat alderdi jorratuz: pertsonarteko harremanak, parte-hartze demokratikoa, elkarlana eta talde-lana, gizarte bizikidetzarako arauak, aniztasuna, arazoaren ebazpena...

**3) Ikasten ikastea:** ikaskidetzaren bidez kompetentzia honen garapena ere lantzen da, izan ere, ikasten ikastearekin erlasionaturiko hainbat alor lantzen dira: ulermenean oinarritutako pentsamendua, pentsamendu sortzailea, pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea, arazoaren ebazpena, baliabide kognitiboaren erabilera...

**4) Komunikatzen ikastea:** kompetentzia honetan trebatzea ere ahalbidetzen dute Ikaskide Taldeek, izan ere, elkarrekin ikasiz, entzuten, galdeetzen, argudiatzen eta eztabaidatzen ikasten dute ikasleek.

**5) Ekintzailetasuna:** kompetentzia honekin ere badu lotura; besteak beste, informazioa hartzen eta gordetzen, ideia berriak eta konponbideak lantzen, ideiak gauzatzen eta inpaktuaren ebaluazioa egiten ikasten delako.



## Elkarrekin ikastearen onurak



Ikaskide Proiektua ikaskidetzan oinarritzen da eta Ikaskide Taldeek badituzte hainbat ezaugarri:

**1) Zeregina denona da:** ikaskide guztiek helburu berbera izan behar dute Ikaskide Taldeetan. Kide guztien partaidetzaren bidez azken ekoizpena lortzea da taldekide denek izan beharko luketen helburua.

**2) Negoziazioa eta komunikazio irekia:** elkarlanean aritzean, elkarreraginean dauden elementuak eduki behar dira kontuan: norbanakoa-taldea; ikaste-irakaste testuingurua, ikaslea-taldea-irakaslea. Elementu horien arteko negoziazioa eta komunikazioa ezinbestekoak dira, batetik, xedeak modu berean irudikatzeko; eta, bestetik, prozesuan sor daitezkeen gatazkak modu positiboan kudeatu ahal izateko.

**3) Kooperazio trebetasunetan entrenamendua:** Ikaskide Taldeak bide arrakastatsutik joateko, ezinbestekoa da kooperazio edo gizarte trebetasunetan entrenatzea. Taldean aritzeak ez dakar, automatikoki, elkarlanean aritzen ikastea. Talde lanean ari gaitezke eta benetako elkarlanarekin zerikusirik ez daukaten trebetasunak garatu: beste en lanaz aprobeztatu, lanetik inhibitu... Horregatik garrantzitsua da kooperazio egoeretan trebatzea eta esperientziak izatea.

**4) Elkarmendekotasun positiboa:** ikasleak, bere helburuak lortu ahal izateko, besteen beharra dauka. Behar honez zereginen egituraketaren bidez ohartuko da: bakoitzak zereginaren atal baten ardura izango du, baina elkarmendekotasuna benetakoa izan dadin, eta ez bakarkako lanen batuketa soila, beharrezkoa izango da talde gisa harago joatea, ikasle bakoitzak eta guztiek egin dituzten lanen arteko erlazioak identifikatzea, eta bakarkako lanen batuketa gaindituko duen zerbait berria ekoiztea.

**5) Taldearen eta banakakoen erantzukizuna:** Ikaskide Taldeak ondo funtzionatzen badu, banakakoaren erantzukizuna ez da taldean diluitzen, baizik eta indartu egiten da. Izan ere, bakoitzak bere zeregina izango du, zeregin horren erantzulea izango da, eta, bere erantzukizunpean dagoena bete ezean, talde osoaren lana jarriko du kolokan, ez bakarrik bere zeregina.

**6) Autonomia eta autoerregulazioa:** taldeak autonomia izango du, bai zereginaren norabidea hautatzerakoan, bai gatazkak bideratzean, baita auto- eta ko-ebaluazio prozesuetan ere.

## Negozio baten bideragarritasun plana lantzen

Ikaskide Proiektuan parte hartzen duen zentroetako bat da Lea Artibai ikastetxea. Hainbat arrazoiengatik erabaki zuten proiektuan parte hartzea. Batetik, gaur egun irakaskuntzaren mundua konpetentzietan oinarritzen delako eta konpetentziak garatzeko oso era aproposa iruditu zitzaidalako. Eta, bestetik, Lea Artibai ikastetxeak enprekin harreman estua duelako eta gaur egun jakintza espezifikoak ere eskatzen dituzten arren, taldean lana egiteari nahiz oinarritzko konpetentziei berebiziko inportantzia ematen dietelako: hala nola, inizatiba, autonomia, arazoei aurre egiteko gaitasuna, egoera ezberdinetara egokitzeko ahalmena eta ondo komunikatzea. Elena Iriondo Lea Artibai ikastetxeko Batxilergoko arduradunak adierazi bezala, “talentua” da gaur egun behin eta berriz entzuten den hitza: “Gauza horiek guztiak kontuan izanda, gure irakasteko prozesua aldatu beharra ikusten genuen, betiere, ahaztu barik, selektibitatea hor dagoela eta horretarako ere prestatu behar ditugula gure ikasleak”. Bere esanetan, Ikaskide Proiektuak konpetentziak garatzeko, edukiak lantzeko eta elkarren arteko harremanak eraikitzeko bidea ireki die.

Proiektua baliagarria izan da Lea Artibai ikastetxeko irakasle, ikasle zein zentro osoarentzat. Sorburutik, irakasleek bazekiten zer nahi zuten lortu, baina ez zekiten nola, eta Ikaskide Proiektuak eman die horretarako gakoak. Iriondok azaldutako moduan, lan kolaboratzailea egin ahal izateko eman beharreko pauso guztiak erakutsi dizkie, hala nola, taldeen osaketa, ikasleen rola, ikasleen motibaziorako dinami-

kak, ebaluazioak... “Ikasle eta irakasleok erabat aldatu behar izan dugu gelan jokatzeko dugun rola. Ikasleei Ikaskide Proiektua baliagarria egin zaie ikasitako testuinguru errealean kokatzeko; irakasleoi, berriz, lehiakortasuna alde batera utziz eta kolaborazioa besarkatuz, metodologia tradizionalarekin irakatsi ezin ditugun trebetasunak erakutsi ahal izateko”.

Proiektuan parte hartzea erabaki zutenean bi dinamizatzaile izendatu zituzten zentroan. Huheziko aholkulariek dinamizatzaileok formatzen dihardute gero haiek irakasle guztiak forma ditzaten. 2013-2014 ikasturtean jarri zuten abian proiektua. Lehenengo urtean ikaskidetzan oinarritutako metodologia ezagutu ondoren, aurreko ikasturtean ikasgaietan praktikan ipini zuten proiektu txikien bidez. Aurten, berriz, autonomia handiagoarekin, baina dinamizatzaileek eta aholkulariek gidatuta, euren material propioak eta proiektuak sortu dituzte. Batxilergoko

1. mailako ikasleekin, esaterako, ekin-tzailetasuna bultzatzeko negozio baten bideragarritasun-plana egiteko proiektua egiten dihardute. Bosteko taldeetan banatuta, 22 orduko proiektua garatzeko prozesu oso bat disenatu dute hainbat helbururekin: ikasleek jarrera ekin-tzailea izan dezaten lortzea; erabakiak hartzen, ardurak norbere gain hartzen edota beste norbaiten esku uzten ikastea; autonomia eta norbere buruarengan konfiantza izatea; enpresak sortzeko eman beharreko urratsei buruzko informazioa helaraztea; zonaldeko ekonomia eta enpresa-ingurunearen berri izatea eta aukerak hautematen jakitea; balioen eta jarreraren inguruan kultura aldaketa bultzatzea; eta zeharkako konpetentziak lantzea.

Bigarren ebaluazioko azterketak egin ondoren, hiru egunetan zehar ikasketa “tradizionala” eten eta garatu dute proiektua. Gero, tutoretzako klasean ikasleek proiektuaren balorazioa egin dute eta amaitzeko beste bi egun





erabili dituzte—egun horietako bakoitzean bi ordu—, taldeka lanen aurkezpenak egiteko areto nagusian. Iriondok esplikatu bezala, talde bakoitzak irakasle arduradun bat izan du. Irakaslearen rola taldea gidatzea izan da, eta ondorioz, irakasleak eta ikasleak taldean estuan aritu behar izan dute, lan-era horrek bi aldean arteko inplikazio handia eskatzen baitu: “Guk aspalditik horrelako proiektuak egin izan ditugu, baina aurreko urteetan gidaritza eta tresnak falta zitzaizkigun eta ez genuen lortzen proiektuari osotasun bat ematea. Hori dela eta, ikasleen zein irakasleen proiektuen balorazioak ez ziren nahi genituen bezain onak. Aurten emaitzak hobekiak izan dira”.

Iriondoren esanetan, ikasleek erantzundako balorazio-inkesta irakurri baino ez da egin behar proiektuaren arrakastaz jabetzeko. Izan ere, Batxilergoko arduradunak azaltzen duenez, ikasleek irakasleak bigarren planoan ikusi dituzte eta ikaste-prozesuaren protagonista eurak direla sentitu dute proiektuaren bidez. “Testuinguru horretan ikasleek aukera izan dute euren talentua erakusteko, baita sormena, parte-hartzea, dinamikotasuna... praktikan jartzeko ere nahiz erabakiak hartzen trebatzeko”. Taldekideen arteko errespetua, taldearekiko konpromisoa eta erantzukizuna landu dituzte; lan kooperatiboan aritzearen ezaugarriak ezagutu dituzte eta horren balioez jabetu dira.

Azken urteetan hezkuntza paradigmen aldaketa gertatu da Lea Artibai-k Batxilergoko arduradunaren iritziz, eta ondorioz, uneotan helburua ez da irakastea, ikasleak ikastea baizik. “Titulua izateak ez gaitu bereizten, baina talentuak bai. Eta talentua entrenatu daiteke. Ikaskidetzan metodologiaren birtate garatu dugun proiektu hau talen-



tua entrenatzeko aukera paregabea da”. Hala ere, horrelako metodologiak curriculumean txertatzeko Batxilergoa pasabide estuegia delakoan daude. Izan ere, ikasleen etorkizuna selektibitatean ateratako kalifikazioen menpe dago, eta, ondorioz, Lea Artibai ikastetxearen helburua da ikasleak ahalik eta ondoen prestatzea aukeratutako ikasketak egin ahal izateko.

Hala ere, oro har, Ikaskide Proiektuaren balorazio oso ona egiten dute Lea Artibai ikastetxean. Iriondok adierazitako moduan, harreman pertsonalak eraikitzeak aukera izan dute, taldekideen artean kohesioa landuz eta taldekideekiko konpromisoa eta erantzukizuna hartuz. Ikasleen eta irakasleen artean kolaborazioaren kultura zabaltzeko ere balio izan die, ikasleek ulertu

baitute lehiaren bidez pertsona bakarrik irabazten duela, baina kolaborazioaren bidez pertsona guztiek. Adibide bat jarri du Iriondok: “Proiektua egiteko Prezi programa erabili behar izan dute. Gutxi batzuek ezagutzen zuten, eta maila oso baxuan gainera. Interesgarria izan da zelan partekatu duten ezagutza hori talde guztien mesedera. Horrez gain, ikasleen arteko harremanak sendotzeko ere baliagarria izan da”.

Oro har, ikastetxean oso pozik daude Ikaskide Proiektua ematen ari den fruituekin eta etorkizunean ere proiektuarekin jarraitzeko asmoa dute. Euren xedea da Batxilergoko 1. mailako iragargai guztietara zabaltzea proiektua, eta erronka nagusia, Batxilergoko 2. mailan ere aplikatzen hastea.



# noemi beneito



## ELKARRIZKETA

Psikomotrizista argentinarra

“Haurtzaroan inbertitu egin behar da, gizartearen obligazioa delako; gainera, gaur inbertitzen den dirua biharko egunean aurrezten dena izango da”



**Urteak daramatza Noemi Beneito psikomotrizista eta hezitzaile argentinarrak arreta goiztiarraren arloan lanean, bereziki behar bereziak dituzten haurrekin. Emmi Piklerren ideiei jarraiki, haurraren garapenerako hiru gakoak inizatiba, autonomia eta askatasuna direla dio; berdin garuneko lesioak, arazo neuromuskularrak, *down* sindromea... dituzten haurren kasuan ere.**

**Estimulazio goiztiarrari kritika egiten dio, garapen taula batzuen arabera haurrari aplikatu beharreko tekniken multzoa bilakatu dela argudiatuta: "Normalki, haurrari eskaintzen zaion hori, jaso nahi duen erantzunaren arabera aukeratzen du helduak". Horren orde, haurrari etengabe begiratzeko eta zer nahi ote duen ikertzeko gomendatzen die hezitzaileei.**

**Arreta goiztiarraren eta prebentzioaren arloan diharduzu lanean, bereziki dibertsitate funtzionalarekin loturiko esparruan, garuneko lesioak, *down* sindromea, arazo neuromuskularrak... dituzten umeekin. Haurraren hasierako urteetan inbertitzearen aldekoa ere bazara. Zergatik da hain garrantzitsua arreta goiztiarra?**

Haur bakoitzarekin du zerikusia arreta goiztiarraren garrantziak. Kanpotik estimulu egokia jasotzen duen ume bat hobeto garatuko da; neurosistema bera ere egokiago zabalduko zaio. Horrekin ez dut esan nahi ume bizkorragoak egingo ditugunik, baizik eta izan daitezkeenik eta inteligenteenak izaten lagunduko diegula. Bizitzako lehen aroan ondo zaindua eta lagundua izan ez den haurrak, denbora askoan bakarrik egon denak edota osasun arazoengatik atxikimenduzko helduetatik urrun egon behar izan duenak, bizitzako aroren batean gabeziaren bat izango du. Gabezia horrek ez du esan nahi haur hori desgaitua denik, arazo horrek ez du zertan potoloa izan, baina haurtzarotan gertatu zen zerbaiten isla izango da. Eta hori "normaltzat" jotzen diren haurren artean ere maiz gertatzen da. Horregatik da garrantzitsua haurtzarotan inbertitzea eta arreta goiztiar egokia eskaintzea haurrei.

**Eta garuneko lesioen bat edota motrizitate arazoren bat duten haurren kasuan?**

Kasu horietan gure obligazioa are eta handiagoa da, hau da, garuneko lesio bat duen haurraren kasuan adibidez, badakigu neurona-zelula kantitate jakin bat galdu egin dela, baina geratu diren neurona horietatik euren onena atera behar dugu. Zentzu neurologikoan ari gara hizketan, baina arazo mota horiek dituzten haurren kasuan ere alderdi afektiboa eta soziala dira funtsezkoenak: Nor dauka aldamenen haur horrek? Nork estimulatzen du? Arreta goiztiarraz da-

kien profesional bat da edota haur hori maite duen norbait da? Horrexegatik gustatzen zait niri familiaren balioaz hitz egitea, haiexek izango baititu benetako bidelagun.

**Hain garrantzitsua izanik, behar beste inbertitzen al da arreta goiztiarrean eta haurtzarotan?**

Arreta goiztiarrean eta haurtzarotan inbertitu egin behar da, gizartearen obligazio bat delako, eta, gainera, era inteligentean inbertitu behar da. Izan ere, gaur inbertitzen den dirua biharko egunean aurrezten dena izango da.

Hala ere, ez dut uste oraindik kontzientzia publikorik dagoenik. Desgaitasuna duen haurren bat tartean dagoenean agertzen da kontzientzia, edo behintzat, maitasun, gozotasun eta txera historia guztia. Horrek, ordea, sarri, zerikusi handiagoa du karitatearekin. Nik askotan esan ohi dut nazkatuta nagoela politikariak ikusteaz *down* sindromea duten haurrei muxu ematen edota gurpildun aulkian doazenengana gerturatzen. Baina benetan prebentzioan eta arreta goiztiarrean jarriko bagenu fokua, etorkizuneko arazo asko saihestu ahalko genituzke, edota gutxienez, "desgaitutzat" jotzen diren pertsona horiek bizitza kalitate hobea izan ahalko lukete.

**Zure ibilbidean zehar nola joan da aldatuz dibertsitate funtzionalaren arloan lan egiteko modua?**

Aldaketa itzela izan da. Ni formatzen hasi nintzenean, "irregularitasun motorrak" deituriko arloan espezializatu nintzen, hau da, ni "irregularitasun motorrak" espezialitateko irakaslea naiz titulazioz. Zer da, baina, "irregular motor" bat? Eta nor litzateke "erregular motorra"? Kontua da moduren batera deitu beharra zegoela eta horrela deitu zitzaioela.

Geroxeago esperientzia interesgarri bat bizitzeko aukera izan nuen,



“**Pikler ezagutu arte ni ez nintzen ohartzen maistra izatera eta haurrei gauzak irakastera jolasten nuela**”

“**Garapen taula batzuen arabera haurrari aplikatu beharreko tekniken multzoa bilakatu da estimulazioa**”

beste lagun batekin batera. Ez zen aurrez pentsatu eta planifikatutako zerbait izan, baizik eta Platako (Buenos Aires-eko probintziako hiria) haurren ospitalean boluntario lan egitera gonbidatu gintuztenean ezustean gertatutako zerbait. Errehabilitazio zentro bat zen eta bertan zerbitzu guztiak zeuden: kinesiologoak, terapeuta okupazionalak, fonoaudiologoak, eskola... Zerbitzu guztiak beteta zedenez, nire lagunak eta nik ez genuenkan zereginik. Batera eta bestera ibili ginen, denbora pasa, gela huts bat topatu genuen arte. Eta han zerbait egin ahal izan genuen. Zorua koltxonetaz bete genuen eta errehabilitazio bategik besterako tartean haurrak han jolastera gonbidatu genituen, materialik eta bestelako ezer gabe. Eta jolaserako tokia besterik ez zenez, inork ez zigun eragozpenik jarri, nahi genuena egiten uzten ziguten. Baina, zer gertatu zen? Haurrek gure gelara soilik etorri nahi zutela, eta errehabilitazio saioen batera joan behar zutenean eroen moduan negarrez hasten zirela, eta konturatu ginen xantaia egiten zirela: “Kinesiologiara etorritzen ez bazara, ez dizugu jolaserara joaten utziko”.

Gainera, kontuan izan behar dugu han zeuden umeetako askok ez zeukala garun paralisirik, poliomielitisa baizik, hau da, arazo neuromuskularrak zituzten. Eta haien jolasik gogokoena gorputz aparatu guztiak mugituz —aldaka, zangoak, besoak...— lurrean itzulipurdika ibiltzea

zen. Guk ez genekien zertan ari ginen, harik eta Picq eta Vayer-en liburu bat gure eskuetara iritsi zen arte. Orduan konturatu ginen psikomotritzitate jolasean ari ginela. Gero Madril-en egon nintzen ikasten eta handik Parisera joan nintzen eta han jakin nuen zer zen psikomotritzitatea eta nolako psikomotritzitatea egin nahi nuen. Geroago, Emmi Pikler ezagutu nuen eta horrek ikuspegia zeharo aldatu zidan.

### **Haurren dibertsitate funtzionala kudeatzeko orduan, zein izan da Emmi Piklerrek egin duen ekarpenik garrantzitsuenak?**

Haur mota guztien kasuan, eta baita dibertsitateari erantzuteko orduan ere, Piklerren ekarpenik handiena autonomia kontzeptuarena izan da. Pikler ezagutu arte ni ez nintzen ohartzen maistra izatera eta haurrei gauzak irakastera jolasten nuela. Askatasunaren eta autonomiaren kontzeptu horri aurre egin beharreak aurkitzen zarenean, hasieran sortzen den sentipena izugarriko hutsunearena da. Nik orain arte egin dudana egin ezean, zer gertatuko da? Umeak berak bakarrik ahalko du?... Era horretako galderak sortzen zaizkigu. Izan ere, nik irakatsi beharra daukadala sentitzen badut, eta hori egiteari uzten badiot, hasieran sekulako estuasuna sentituko dut. Eta sentipen horrek emaitzak ikusten hasten garen arte irauten du. Baina emaitzak ikusten hasten zarenean, bizitzako ikuspegia, eta ondorioz, zure eguneroko jarduna aldatu egin direla ohartzen zara.

### **Lan egiteko modua iraultzen da, hortaz?**

Lan egiteko modua baino gehiago, “irakasten duen” hezitzailearen kontzeptua aldatzen zaizu. Itxaroten duen heldua ikusten hasten zara, haurrari arreta jartzen diona eta umeari lagun egiten diona. Horrexegatik,

sarri, nik ez dut estimulazio goiztiarra kontzeptua erabili nahi izaten, horrek haurra estimulatzen duen irakaslea ekartzen didalako gogora.

### **Estimulazio goiztiarrari kritika egiten diozu, baita dibertsitate funtzionaleko haurren kasuan ere. Zergatik?**

Estimulazioa garapen taula batzuen arabera haurrari aplikatu beharrekotekniken multzoa bilakatu delako. Estimulazioa erabat urruntzen da une horretan haurrak egin nahi duenetik, desio duenetik eta planifikatu duenetik. Psikoanalistek asko hitz egiten dute desioaz eta plazeraz. Ni irakaskuntzaren arlotik natorrenez, gehiago interesatzen zait haur batek ideia bat eraikitzea, planifikatzea eta desio duen hura martxan jartzeko gaitasuna izatea. Hau da, ez da soilik maitasunaren indarrez ekiten ari, baizik eta prozesu mental konplexu bat martxan jartzen ari da, pentsamendua sakonki organizatzen... Eta haur bati bere pentsamendua organizatzen uzten zaionean, haur hori inteligentea goa izan dadin laguntzen ari da hezitzailea. Aldiz, estimulazio goiztiarrekin kontrakoa egiten da.

### **Deskribatzen duzun arreta mota horrek pentsamenduaren organizazioarekin dauka zerikusia.**

Bai, baina hori ez litzateke estimulazioa. Izan ere, gehienetan estimulazioak esan nahi du haurrari gauzak eskaintzea erantzunak eman ditzan. Eta, normalki, haurrari eskaintzen dion hori, jaso nahi duen erantzunaren arabera aukeratzen du helduak. Zerbait programatua eta itxia da. Aldiz, hezitzaile batek espazio batean hainbat objektu jartzen baditu eta haurra bere ekimenez zertan hasten den itxaroten geratzen bada, heldu hori beste era bateko prozesuan dago murgilduta eta ez da haurra estimulatu nahian ari. Adibidez, ume batek kristalezko kopa bat ikusten du, arreta deitzen dio eta kopa hori hartu



nahian hasten da: debekatuta dauka, ez diote uzten, baina hori nahi du, “gustatu zait eta hori lortu nahi dut, ez didate uzten, nola egingo dut hori lortzeko? Iristen naiz? Zer egingo dut?” Sekulako estrategiak jartzen dituzte haurrek martxan horrelako kasuetan eta hori oso aberasgarria da.

### **Kasu horretan haurraren inizatibaz, eta, era berean, autonomiaranzko lehen urratsez ariko ginatete hizketan?**

Hori da. Iniziatiba, autonomia eta askatasuna dira haurraren garapenerako hiru gakoak. Eta horrek ez dauka zerikusirik haurrari mugarik ez jartzearekin. Nik nire lan-aretoan idazmahai bat daukat, hark helduleku arrosak dituen ate zuri bat du, haurrek erraz ikusteko modukoa da, eta barruan jostailuak daude. Umeek hori badakite, eta beraz, hasieran, iritsi bezain pronto armairura joaten dira eta ate ireki nahian hasten dira. Nik egiten dudan gauza bakarra da eskua jarri eta esan: “Hau nirea da, barkaidazu”, eta isilunea egiten dut, eta geroxeago jarraitzen dut esaten: “Hau nirea da eta nik irekiko dut”. Baina inoiz ez dut erabiltzen ‘ez’ hitza. Haurrekin ez dut ezezkorik erabiltzen. Horren ordez azalpenak ematen dizkiet. Eta haurrek —egiatan diot—, ulertu egi-

ten dute eta beste zerbaitetara joaten dira. Oso ohikoa da hezitzaileen edota gurasoen partetik “ez, ez, ez, ez...” erantzutea haurrei eta ate guztiak itxita edukitzea, hau edo beste egin ez dezaten. Nik ez dut aterik itxita edukitzen. Akaso handik hurrengo astean berriz ere ate horretara urreratzen dira haurrak eta esaten diet: “Gogoratzen duzu? Nirea da, eskerrik asko”. Eta eskerrak ematen dizkiet irekitzen ez dutenean. Baina behin astea igarota, inoiz gehiago ez dira gerturatzen armairu horretara.

Guraso batzuek esaten didate haurren aldetik oihuak, kasketak eta garrasiak espero zituztela, ate ireki ez zaielako. Baina, zergatik kasketa? Nik ez diot haurrari ezer debekatu, baizik eta adierazi diot armairu hori nirea dela. Hortaz, haurrek zurea den gauza bat errespetatu egiten dute baldin eta zuk errespetuz tratatzen badituzu. Batzuetan haurrak niregandik oso gertu jartzen dira, armairuari begiratzen diote eta gero niri. Kasu horietan haurrak armairua irekitzeko eskatzen ari zaizkit, eta orduan bai, ireki egiten diet. Baina gainontzean, gure aretoko araua horixe da. Izan ere, beste gauza guztiak erabil ditzakete, tiraderak ireki, apaletako objektuak hartu, saskiko baloi guztiak atera...

noemi  
beneito

E

“ Askatasunaren eta autonomiaren kontzeptuari aurre egin beharrean aurkitzen zarenean, sekulako hutsunea eta estuasuna sentitzen duzu hasieran ”

“ Haur bati bere pentsamendua organizatzen uzten zaionean, haur hori inteligenteagoa izan dadin laguntzen ari da hezitzailea ”



Muga bakarra idazmahaiko atea ez irekitzea da. Eta gainera iruditzen zait hori hurrekin egiten den lanaren parte dela. Izan ere, hurrek “nirea” “zuretik” bereizten ikasten dute, “norberarena” eta “bestearena” desberdintzen dituzte, “baimenduta dagoena” eta “egin ezin duena”, “bere kabuz egin dezakeena” eta “helduari eskatu behar diona”... Pentsamenduarien, jarreraren eta bizitzaren organizazioaren mailak dira. Sarri, gurasoak harritu egiten dira euren haurra nire lan-aretoko arau bat ulertzeko, barnertzeko eta errespetatzeko gai dela ikustean, baina, benetan, hori ulertzeko eta beste gauza askotarako dira gai.

**Estimulazio goiztiarraren kontzeptua gainditu dela aipatu duzu, eta uneotan hezitzailearen egitekoa haurraren eta**

**familiaren bidelagun izatea dela.**

Nik familiaz hitz egiten dut iruditzen zaidalako familiak erabat konprometituta egon behar duela. Nik desgaitasunak dituzten hurrekin lan egiten dut, baina inoiz ez naiz haiekin bakarrik egoten; beti izaten dut familia-kideren bat alboan. Adibidez, haur txikien kasuan, nik inoiz ez dizkiet euren eskura jartzen jostailu pisutsuak edo egurrezkoak edo bota ditzaleten objektuak; nahiago izaten dut objektu arinak ematea—teniseko pilotak, goma-aparrak materialak...—, inolako arriskurik gabe botatzeko aukera izan dezaten, minik hartzeko arriskurik gabe eta nik “ez” esanez esku hartzeko beharrik gabe. “Kontuz, hau ez bota, besteari mina emango diozu-eta”; “hori ez da botatzeko, jolasteko da”... era horretako esaldiak etengabe entzuten ditugu, baina jakin behar dugu egurrekin edo objektu pisutsuekin jolasten has dadin, haurrak gauzak botatzeko fasea iragana izan behar duela; beraz, gauzak botatzeko fasean dagoenean ez dizkiogu objektu horiek emango. Azken batean, nik haurrari ez diot eskueran material bat jartzen, baldin eta material hori “behar den bezala” erabiltzeko gai ez bada. Izan ere, haurrak adin egokia duenean, material hori “behar bezala” erabiltzen du. Egurraren adibidea jarri dut, ohikoena delako. Eta familia-kideek lanketa hori guztia ikusi eta bizi egiten dute.

**Zer gomendatuko zenieke hezitzaileei haurren garapenean bidelagun egoki izan daitezen?**

Nire ustez gomendio printzipalea da haurrari begira diezaiotela, etengabe, eta galde dezatela zer nahi ote duen haurrak. Oro har, sekulako beldurra diogu haurrak zer nahi duen jakiteari, eta ondorioz, etenik gabe kanpotik gauzak eskaintzen dizkiogu, emateko sekulako beharra daukagu, dena egitekoa. Baina badirudi eskaintzen den hori guztia helduaren

iniziatibaz sortzen dela, eta hori haurraren aurka joatea da: batetik, heldua egun osoan pentsatzen eta planifikatzen ari denez, haurra aspertu egiten duelako; eta bestetik, haur hori geroz baino geroz mendekoago bilakatzen delako, eta egun baten buruan 20-30 haur mendeko gelan izatea zoramen da. Hezitzaileak begiratzen eta itxaroten ikasten duenean, eta haurraren gerturatzen denean eta berak bere ekimenez egin eta sor dezan uzten dionean, hezitzaile hori askoz ere erlaxatuago eta deskantsatuago egongo da. Askotan badirudi zenbait hezitzaile “ez direla ezer egiten ari”, baina ez da horrela, erabat “adi” daude eta izugarri ari dira egiten.

**“Ezer egiten ari ez dela” dirudien hezitzaile hori laguntza egokia ari da ematen?**

Zalantzarik gabe. Hezitzaile bat bazter batean eserita ikusten duzunean, hezitzaile hori akonpainamendu egoki bat egiten ari delako seinale da. Heldua hor dago, segurtasuna ematen du, presentzia ematen du, arazok konpontzen lagun dezake... Gogoan dut Budapesten Haur Hezkuntzako ume bat behin eskolara nola oso pozik joan zen irakasleari kontatuz bere gurasoekin erromatarren hilerri bat bisitatu zuela. Handik pixka batera irakaslea entziklopedia batekin etorri zen erromatarren lurraldea garai batean zein zabala izan zen erakusteko eta aipatu zion beste egun batean beste leku oso interesgarri bat bisitatzera ere joan zitekeela. Lau urteko haur batekin ari zen entziklopedia bat kontsultatzen eta erromatarrez hizketan. Ez dakit gero zer egin zuen ume hark, baina behintzat une hartan erromatarrez interesatua zegoen eta haien aztarnez hizketan ari zen. Zoragarria iruditu zitzaidan.

**Badirudi haurrak txikiak direnean hezitzaileari eskatzen zaiola haien erritmoak errespetatzeko, itxaroten**



**jakiteko eta patxada izateko, baina haur horiek haziz doazen heinean irakasleak ezin duela inolaz ere ikasleen zain egon. Uste duzu haurrek adinean aurrera egin arren, filosofiak berbera izan beharko lukeela?**

Haur bat hazten doan heinean, gero eta betebeharrak gehiago aurrera eginez joaten da, gauza eta egoera ezberdinei erantzuten die, eta uste dut eskolan badagoela momentu bat gusatzen ez zaizun hori ere zure ibilbidearen parte bilakatzen dena, baina kontuan izan behar dugu, era berean, absolutuki plazerean bizitzeak ez duela esan nahi pertsona bat plazer-egoeran dagoenik, hau da, pertsona batek plazera zer den jakin dezan galdu egin behar du, berriz aurkitu, behin eta berriz sentitu... Erabateko plazerik ez da existitzen. Hori bai, haur txikiak bere bizitzako lehen etapen ere aurkitzen ditu kontraesanak. Zerbait egin nahi duenean eta ezin duenean, dorre bat egiten duenean eta lurrera erortzen zaionean, piezak zuloan sartu nahi dituztenean eta lortzen ez duenean... haur horrek ere kontraesanekin topo egiten du. Kontua da hezitzaileak ez duela propio era horretako kontraesanen aurrean jarri behar, esaterako, bolatxoak botilari sartzen, horrek ez baitu zentzurik

haurrarentzat. Eta estimulazio goiztiarreko saioetan hori ere ikusten da: adibidez, haziak hartu eta botilari sartu behar izaten dituzte.

Une honetan, Argentinan sekulako eztabaida daukagu haurrei egiten zaizkien zenbait ebaluazio-probarekin. Adibidez, proba horietako batean, haurrak tutu bat hartu eta 12 mahaspasa tutu horretan sartu behar dituzte pintzak erabiliz. Nik lan egin dudana haurretako batek, mahaspasak aurrean jarri zituztenean zer egin zuen? Jan egin zituen. Eta proban zer jarri zioten? Gaizki egin zuela eta ez zuela proba gainditu. Nire ustez, berriz, zoragarria da haur hark egin zuena. Mahaspasak zertarako dira? Jateko. Haur hark zer egin behar zuen mahaspasekin? Bada, jan. Erokeria bat da horrelako ebaluazio-probekin gertatzen ari dena. Aldiz, jarduera autonomoaren ikuspegitik begiratzen badiogu haur hark egin zuenari, guztiz emaitza diferentea lortuko dugu. Izan ere, konturatuko gara haur hori gai dela ahoan zer sartu eta zer ez bereizteko; topatzen duen guztia jaten ote duen edota janaria bakarrik irensten ote duen jakiteko balio digu.

**Haurrari erantzun egokiak emateko, hezitzaileak bere buru-gorputzaren**



**lanketa  
egin behar du?**

Wallon eta Ajuriagerrak garaturiko “elkarrizketa tonikoa” da guk arlo horretan lantzen dugun kontzeptuetako bat. Jende askok uste du elkarrizketa tonikoa bata bestearekin besarkatzea eta erlaxatzea dela, baina ez da horrela, inondik inora ere ez. Nik haserre dagoen haur bat baldin badaukat aurrean, zer egingo dut elkarrizketa tonikoa lortzeko? Ni aldatuko naiz?

Hezitzaileak lan korporala egiteko oinarritzko beharra dauka. Gorpuztaren gaineko kontzientzia hartzeko teknika eta lan mota asko daude, eta horretarako ez dago gorpil psikoanalitiko batean sartu beharrik. Norbere gorputza sentitzen hastea, erlaxatzen den edo ez antzematea... Horrek jada lehen kontzientzia hartzeko balio du. Gaur egun irakasleak bere gorputza ezagutzeko obligazioa du. Norbere gorputza ezagutzen ez duenak, ez du bestearen ezer ulertzen. Ez du haurrari zer ari zaion gertatzen ulertuko, ezta guraso bati zer gertatzen zaion ere. Hortaz, psikomotrizitate gatozenok ez badugu geure eta besteen gorputzak ulertzeko ahalegina egin behar, noren esku utziko dugu egiteko hori?

**Winnicott-ek dio haurra ez dela existitzen atxikimenduzko heldurik gabe, eta autore horren erreferentzia eginaz diozu haurrak bere lehen harremanak ez dituela ingurune fisikoarekin, helduekin baizik.**

Heldu bat bere alboan izan ez duen haurra hil egingo da. Helduen

faltagatik arazo fisiko eta psikologiko larriak izan dituzten haurrak ere eza gutzen ditugu. Hori horrela izanik, haurraren eguneroko bizitzan uste dut Emmi Piklerrek egin zuen bereizketa bat oso kontuan izan behar genukeela. Haurraren bizitzan une batzuk daude helduarekin oso harreman estuan dagoenak eta beste une batzuk jolas autonomokoak. Eta hori jaiotzatik da horrela. Garbiketa, jantzi-erantziak, jateko uneak dira harreman biziko momentuak. Une horietan helduak haurra besoetan hartzen du, besarkatzen du, sentitzen du, lantzantzen du... Baina beste momentu batzuetan haurrak helduarengandik bereizita egon behar du. Zergatik? Une horietan hasten delako haurra pentsatzen. Emozioek gain hartzen duten bitartean, hau da, haurra helduari atxikita dagoen bitartean, ezin du pentsatu. Afektua eta kariñoa bizi-tzen ariko da, baina helduarengandik separatzen denean bakarrik hasiko da pentsatzen. Egia da, era berean, haur txikiaren kasuan bereizketa une horiek motzagoak direla, ia-ia uneoro helduaren beharra dutelako.

Baina behin umea mugitzen eta batetik bestera joaten hasten denean, zer ari zaigu esaten? Zergatik ari da mugitzen? Helduago egiten ari delako soilik? Nire ustez, trabeska jartzen eta hauspez jartzen hasten denean, mentalki helduarengandik bereizten hasi delako da. Saihetsez edo buruz bera jartzeak desplazamenduari bidea irekiko dio eta horixe da helduarengandiko haurraren bereizte prozesua. Haurrak hasten duen zerbait da, horrexegatik niretzat postura aldaketak ez dauka soilik motrizitatearekin zerikusia, baita haurraren garapenarekin ere. Haurrak desplazamendua hasten du separazio-prozesua hasi duelako. Hortik etorriko da gero, bi urte ingururekin, indibidua-zioa, “Ni”-aren garrantzia eta haurra besteetatik diferentia dela konturatzea. Eta garapen motorrak horrekin



“**Hezitzaileak begiratzen eta itxaroten ikasten duenean, haurraren gerturatu eta berak bere ekimenez egin eta sor dezan uzten dionean, hezitzaile hori askoz ere erlaxatuago eta deskantsatuago egongo da**”

“**Haurra irakurria denean, eta berak hitz egin ez arren, erantzun egoki bat jasotzen duenean, bere hizkuntza eraikitzen ari da**”



guztiarekin du zerikusia, ez motrizitatearekin soilik.

### **Zer nolako garrantzia du haurraren garapenean interrelazioak?**

Haurrak bere Ni-a eraikitzeko prozesu hori egin dezake besteekin dagoelako. Hau da, ez dauka aukerarik bera “bera” dela jakiteko, baldin eta bera zaindu, babestu, lagundu... duen “beste” horren esperientzia bizi izanez badi. Beste horrek sostengua, konfiantza, segurtasuna... eman zion eta orain autonomian utzi du.

Hortaz, alde batean egiten uzten dion heldua dago, eta beste aldean eskatzen duen haurra: helduari atxikita egotea eskatzen du, baina baita bakarrik egotea ere. Beraz, heldua da egoera horiek interpretatzen jakin behar duena: haurra noiz hartu, noiz utzi, noiz joan bere bila... Heldu batzuk oso kapazak dira haurrak zer nahi duen jakiteko: “Oraindik ez zait deika ari. Ikusiko duzu nola segundo batzuk itxaron eta oihu diferentea egiten duen. Orduan bai, orduan berarengana joan nadin nahi du”. Beste heldu batzuei, ordea, izugarri kostatzen zaie haurrari zer gertatzen zaion jakitea eta dena egituratua izaten dute: “Orain jateko ordua da, orain bainua hartu behar du, orain lo egin behar du...” Eta beste guztia, kapritxoak edo nork daki zer dela iruditzen zaie. Hau da, ez dira gai haurra irakurtzeko. Eta haurra irakurria denean, eta berak hitz egin ez arren, erantzun egoki bat jasotzen duenean, bere hizkuntza eraikitzen ari da, eskaera eta erantzun bat baitaude. Horixe da lengoaia. Eta hori berdin-berdin gertatzen da edozein haurren kasuan. Guraso batzuek esaten didate: “Noemi, haurrak ulertu egin dit”. Eta esaten diet: “Noski. Eta nolatan ez zara horretaz aurretik jabetu?”. Haurrak ulertzen du eta badaki. Akaso ez daki eskatzeko guk erabiltzen ditugun bitartekoak erabiltzen, baina jakin badaki, inongo zalantzarik gabe.

### **Askotariko sektoreekin lan egiten esperientzia handia duzu, medikuekin, pediatrekin... Zertan da berdina zuen lana? Zertan da desberdinak? Zein zailtasun dituzue? Elkarlan horrek zer errazten du?**

Nire ustez, oro har, arazoa da formazio mota oso diferenteak daudela, eta orokorrean, formazio horiek ez direla ondo eramaten gorputzaren osotasunera. Berreziketa gorputzaren estimulazioarekin lotzen da, alderdi sensorialarekin eta motorrekin, hau da, zuzenean ikaskuntzarekin lotzen den guztiarekin. Zentzu horretan, nik uste dut Piklerren ideiek hainbat arlo lotzen eta bateratzen laguntzen digutela, kontua ez baita fisiologoek edota psikiatrek haien pentsamendua aldatzea, bai ordea subjektua bere osotasunean hartzea.

Haurra bere osotasunean ulertzen

dudalako diot ez dela hazten ari delako bakarrik mugitzen, baizik eta pentsamendu eskema baten arabera mugitzen dela. Haurrak zerbait planifikatzen du eta hortik abiatuta zabalitzen du pentsamendua. Akaso oraindik ez du jakingo nola heldu desio duen objektu horretara, baina dagoneko egituraketa motor bat ageri da haur horrengan. Hori nola lor dezakeen ideiatzen hasten da, eta nire ustez horixe da aberatsa haur batengan. Dibertsitate funtzionala duten haurrekin ere horixe lantzen dut, nahiz eta haiek, oro har, gehiago tardatzen duten prozesu horiek hasten. Oso luzea izan daitekeen sortasun etapa bat dago haur guztietan, eta etapa horretan postura egokiak hartzeak eta helduaren laguntza egokiak haurrari gero ahalbidetzen dio “Ni”-aren eraikuntza aro hori kalitatez egitea.





# LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

Aitziber Perez, LABeko Hezkuntza arduraduna: LOMCEren eragina Heziberrin

**“Eusko Jaurlaritzak egin ditu aldaketa batzuk, ahalmena zuen heinean, baina curriculuma eta LOMCEren ardatz nagusiak barneratu egin ditu”**

**Eragileek proposatutako hainbat aldaketa eginda, Heziberri egitasmoko curriculum dekretu definitiboak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzak: zertan jarraitzen du LOMCEren mendeko izaten? Eta zertan gutxitu da mendetasun hori?**

Lehen zirriborrotik alde handia dago, orri kopuruetatik edo tamainatik hasita, bestelako aferetaraino. Esaterako, lehen zirriborroan LOMCErekiko lege erreferentziak zehazki aipatzen bazituen, bigarren testu honetan ez ditu aipatzen; horribai, Indarreko Lege Organikoak aipatzen ditu Heziberriren marko legal gisa, eta zaku horretan LOMCE ere sartzen da. Beraz, LOMCE ez da zehazki aipatzen, baina horrek ez du esan nahi LOMCE ez dagoenik: curriculum dekretuaren garapenean ikusten da LOMCEren arima bertan txertatua dagoela.

Eusko Jaurlaritzak bi aukera zituen. Batetik, ezkerreko eskua erabili eta LOMCE ez aipatzea: Estatuko lege bat izanik aintzat hartzea behartuta daude, baina hitz politekin jarrita. Bestetik, LOMCEri aurre egiteko aukera zuen: instituzio gisa LOMCE ez aplikatzeko bitartekoak jartzea. Azken bizpahiru urte-



etan izandako jarrera ikusita, bagenekien bigarren aukera oso zaila izango zela. Beraz, lehen aukeraren bidetik, tarteko zerbait egin nahi izan du: egin ditu aldaketa batzuk, ahalmena zuen heinean, baina curriculumak eta LOMCEren ardatz nagusi batzuk barneratu egin ditu.

Adibidez, ebaluazioen gaia edo ikasgai batzuk izango duten pisua, LOMCEk proposatuak izanik, bere egin ditu Heziberri. LOMCEren baitan orain aukerazko gisa egongo dira irakasgai batzuk, LOMCEk baduelako hezkuntzaren gaineko ikuspegi politikoa eta badakielako zertarako erabili nahi duen hezkuntza bera. Horrenbestez, zientziei edo ingelesari pisua ematen die, eta beste arloei, musikari edo filosofiarri esaterako, indarra kentzen die. Egitura hori bera Eusko Jaurlaritzak barneratu egin du. Esaten du ikastetxeek aukera dutela orain arte bezala eskaintzeko irakasgai horiek, baina ez zaigu iruditzen irtenbidea denik ikastetxeen gain uztea auzia.

Bestalde, LOMCEk irekita uzten zituen gauza jakin batzuk aldatu dituzte

Heziberriren bigarren testuan, baina gauza teknikoak dira, ez diote eragiten mamiari. Adibidez, LOMCEk Lehen Hezkuntza bi ziklotan banatzea arautzen du, eta Eusko Jaurlaritzak proposamen gisa aurkezten du eta ikastetxe bakoitzaren gain uzten du LH nahi duen bezala antolatzea.

### **Autonomia gehiago ematen die ikastetxeei, beraz?**

Tranpa da azken batean, ordea, ondoren Heziberrik esaten baitu LH3n eta LH6n diagnostiko-probak egingo dituela. Beraz, bai, ikastetxeei uzten die nahi bezala antolatzen, baina hein handi batean ikastetxeek badakite gero LH3n eta LH6n azterketak daudela, eta beraien eguneroko jarduna eta lana horren araber moldatu behar dutela.

### **Autonomia horren bidetik, ordea, eskola-kontseiluek EAEn indarra izango dute, beste lekuetan ez bezala.**

Bi akordio egin zituzten Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak: bata, orain arteko EAeko hizkuntza-ereduak mantentzearen aldekoa; eta bigarrena eskola-kontseiluen ingurukoa, orain arteko akordioak mantentzearen aldekoa. Orain, Espainiako Gobernuak aitortzen dio Eusko Jaurlaritzari eskumena eskola-kontseiluen ingurukoak kudeatzeko. Beti aipatzen dugu hizkuntza-ereduak mantenduko direla, eskola-kontseiluak mantenduko direla... baina akordioak zehazki jasotzen duena da Jaurlaritzari eskumena aitortzen zaiola gai horiek kudeatzeko.

Ikastetxeek izango duten autonomia mailari dagokionez, gu autonomiaren alde gaude eta uste dugu autonomia behar dugula hezkuntza-eredu propioa lantzeko, herri curriculumak garatzeko... Baina, gure ustez, kasu honetan Jaurlaritzak bere eginbeharren utzikeria egin du. EAeko hezkuntza nola garatuko duten azaldu beharrean eta horretarako beharrezko erabakiak hartu beharrean, zehaztapenik gabeko testua egin dute, eta, autonomiaren izenburupean, ikas-

tetxeen gain uzten dute erabakia. Gure ustez, ordea, Jaurlaritzak erabaki behar du zein norabide markatu nahi duen bere hezkuntza-sisteman, eta gero, marko zabal horren pean, garatuko du ikastetxe bakoitzak bere bidea. Baina ardura Jaurlaritzarena da, ez ikastetxe bakoitzarena. Uste dugu autonomiaren izenburupean beraien gabezia handiak ezkutatu nahi dituztela.

Bestalde, aspalditik ari gara esaten eskola-kontseiluek parte-hartze mugatua dutela, eta hori zabaldu egin behar dela. Benetan nahi badugu hezkuntza-komunitate guztia proiektuaren parte izatea, ez du balio kontseilua bozketa jakin batzuetarako edo une zehatz batzuetarako deitzea; eguneroko erabakietan ere parte hartu beharko dute familia horiek. Orduan, iruditzen zaigu bereziki autonomiaren gai horretan badatorrela sekulako tranpa. Lehen irakurraldian proposamen ona dirudi, baina hasten zara aztertzen eta diozu 'baina nola, zuke ez duzu zehazten norabidea, eta nik egin behar dut hori nire ikastetxean?'

### **Banaketa goiztiarrari dagokionez, badirudi leundu egiten dela Heziberrirekin, ezta?**

Diote gauzak beste modu batera egingo dituztela bide hori ez hartzeko, baina finean barneratu egiten dute banaketa goiztiarraren gaia ere. Onartu egiten dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailatik bi ikasketa-eredu egongo direla, ikasketa akademizistak eta ikasketa aplikatuak-edo direnak, baina diote matematikan curriculum komuna izango dela % 80an, ekitatearen izenean denak DBH4ra modu berdinean iristea nahi dutela-eta. Beno, praktikan ikusi beharko da. Izan ere, diagnostiko-probak baldin badatoz DBH4 amaieran, ikusi beharko da zein ereditakoak diren, horrek baldintzatu du guztia. Behin LOMCE barneratu eta gero saiatzeko dira mekanismo horiek leuntzen eta bestelako irtenbideak bilatzen, baina barneratu ondoren.

### **Badirudi LOMCEn baino garatuago dagoela kompetentzien gaia Heziberrin.**

LOMCE kokatzen da bere garaian LOEk definitutako 7 kompetentziaren baitan. Arloei loturiko kompetentzia espezifikokoak dira: kompetentzia zientzifikokoak, edo artistikoak, edo... Heziberrik zeharkako beste 5 kompetentzia gehitu dizkie 7 horiei, izango liratekeenak kompetentzia orokorrak: pertsonaren garapenerako ardatzak direnak eta euskal curriculumean aipatzen zirenak.

Kompetentziekin lotuta dago ebaluazio-sistemaren gaia, eta Heziberrik ez du zehazten nola ebaluatuko diren kompetentzia horiek; lehenengo zirriborroan aipatzen zen edukien ebaluazioa nola egin, baina azken testuan ez. Jaurlaritzari honetaz galdetu genionean esan zuen irakasleek orientazio moduan izango zituztela lehenengo zirriborro horretan aurkeztutako item horiek. Arraroa da, ordea: ez du esaten nola egin ebaluazioa, irakasleei emango die lehen zirriborroan jasotakoa item zerrenda orientaziorako... Orduan kompetentziak benetan nola edo zeren arabera ebaluatuko dira? Hutsune ikaragarria ikusten dugu.

### **Xabier Garagorrik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza aholkulariak, 'hik hasi'-ren 196. zenbakian eginiko elkarrizketan zioenez, kompetentzia zehatzek bezainbesteko garrantzia izango dute zehar-kompetentziek ebaluazio-sisteman. Bere esanetan, zehar-kompetentziak ebaluatzen ez badira, ebaluazioa hankamotz geldituko da.**

Errealitatean, ordea, dekretuan bertan zehaztu egiten da nolakoa izango den noten buletina: jarri behar diozu 'ongi' edo 'oso ongi' edo zenbaki bat, arloz arlo. Orduan, irakasleak kompetentzien gainean lan egin behar badu, ez du balio lehengo buletin bera erabiltzea eta gurasoari esatea "matematikak 7 bat dauka". Izan ere, horrekin azkenean irakaslea ere horretara joango da, zenbaki baten bila, eta zeharkako konpe-

tentzien ebaluazioa betelana izango da. Eta, martxa honetan, iruditzen zait ebaluazio-eredua ere azterketa izango dela oraindik ere: paper baten aurrean jarriko dira ikasleak idazten eta emaitza zenbaki bat izango da.

Bestalde, guk uste dugu konpententzia horiek Euskal Herrian txertatuta egon behar direla, ezin direla zerbait abstraktu gisa planteatu: konpententzia horiek mundu guztian ia-ia berdinak dira, baina gure berezitasunaren arabera definitu behar dira, euskal curriculumaren bidetik. Horri gehitzen badiogu ebaluazioaz ez dela inolako hausnarketarik egiten, edo bestelako paradigma baterantz inolako urratsik egiten, nahiko ahul geratzen da proposamena. Gabeziak daude konpententzien planteamenduan, horien garapenean, horien ebaluazioan... Markoa gehiago zehaztu behar da.

**Heziberriren lehen zirriborroari ekarpenak egiten zizkion LABek txosten batean, eta parekidetasuna eta hezkidetzak aipatzen ziren. Badirudi bigarren testuan txertatu dituztela; horren inguruan zer balorazio egiten duzue?**

Hezkidetzak aipatzen da bereziki Oinarriko Hezkuntzaren curriculumean, eta irakaskuntzarako materialei ere egiten die aipamena, eta guretzat hori garrantzitsua da. Baina, era berean, hankamotz ikusten dugu: hezkidetzak Haur Hezkuntzatik aurrerako etapa guztietan hartu beharko litzateke aintzat. Kontuan hartuta Haur Hezkuntzan, adibidez, zer motatako materialak erabiltzen diren, ipuinak eta abar, gure ustez zehaztapen gehiago behar genuke material pedagogikoen inguruan, horien erabileraz eta izaeraz. Guretzat hezkidetzak jaiotzatik bertatik landu beharreko kontua da eta hezkuntza-sistema guztian eragin beharko luke. Azken finean, planteamendu pedagogikoa da hezkidetzak, eta dena busti beharko luke; hausnarketa sakon bat egiten behar da nola gauzatu erabakitzeke. Kontua ez da ikas-materialari arreta jartzea baka-

rrik, kontuan izan behar da hezitzaileen formazioa ere, familiekin hitz egiten behar da... Benetako apustua egiten bada hezkidetzaren alde, benetako inbertsioa ere egiten behar da horren alde.

**Beraz, zuen ondorio nagusia da Heziberri leundu egin dela lehen zirriborrotik behin betikora, baina oraindik ere LOMCErekiko mendeko izaten jarraitzen duela.**

Hori da. Gainera, badago aipatu ez dugun beste gai bat: kulturaren trataera. Hezkuntzak helburu bikoitza du, kateko artean: bata, ikaslea prestatzea helduarora sartzen denean bere gaitasun afektiboak, intelektualak eta abar ondo garatuta izateko; bestea, kulturaren transmisioa bermatzea. Herri baten parte gara, eta denok partekatzen ditugun erreferentzia horiek indartu egin behar ditugu. Euskal curriculumaren helburuetako eta indargu-neetako bat hori zen, hain zuzen ere.

Baina ikusten dugu transmisio hori eten egin dela edo ez dela bermatzen, ez etxean ez eskolan. 2003ko ikerketa bateko datuen arabera, euskal kulturaren inguruko ezagutza oso-oso eskasa da. Eta orain egingo balitz ikerketa, 12 urte eta gero, emaitzak izango lirateke are kaskarragoak, ez baita ezer egin 12 urte hauetan horri aurre egiteko; horretan utzikeria nabarmena dago Hezkuntza Sailaren aldetik, berari baitagokio transmisio hori definitzea eta bermatzea. Ez du debekatzen, baina ikastetxe bakoitzaren mende uzten du euskal kultura landu edo ez erabakitzea. Baina ez da egon behar ikastetxe bakoitzaren borondatearen edo gogoaren mende: herri hau bizirik iraunarazi nahi badu, Jaurlaritzaren betebeharra da kulturaren transmisioa bermatzea, baina ez du egiten, LOMCEk ez dio uzten horrelakorik egiten.

Dena dela, aurrez LODE zen oztopoa, ondoren LOGSE izan zen traba, orain LOMCE da erruduna... Eta horrek eramaten gaitu beti ia-ia puntu berdinerak: gure hezkuntza sistema propioa garatzeko norabidean ez dugu inolako

urratsik ikusten.

Bazirudien Heziberri honetan uzten zirela zirrikitu batzuk, ate batzuk erdi itxita erdi irekita LOMCErekiko, baina gero, abstrakzioerako joera horrekin eta zehaztapen falta horrekin, ez dakizu nondik joko duen kontuak. Uste dut oso lotuta dagoela Eusko Jaurlaritzak hasieratik aipatzen duen ideia batekin: Espainian Gobernu aldaketa gertatuko dela dio, eta hezkuntza-legea aldatuko dela horrekin. Era berean, ordea, Jaurlaritzak adierazi du Heziberri egin egingo zutela LOMCE izan ez balitz ere, eta baliagarria dela. Eta gure galdera da: baliagarria, zertarako? Aurrera egiteko, ez zaigu iruditzen.

Gainera, esatean LOMCE atzera botako dela, tranpa egiten ari dira, nola bait esatearren: LOMCE ez dute atzera botako, legea bera ez da aldatuko; aldatuko dituzte atal jakin batzuk. Baina legegaren ardatza mantendu egingo da: ikaslearen ikuspegi zehatz bat lortzearena.

**Ikaslearen zein ikuspegitaz ari zara?**

Ikuspegi merkantilistaz, espainolaz... Eta ez dut uste azken horretan balizko gobernu aldaketak eragin handirik izango lukeenik. Ezberdina izan daiteke eszenifikazioa, PSOEk momentu batean kontsensusa saldu nahiko baitu: mahai batean bueltan Espainiako hezkuntza-eragile batzuk biltzea eta hor erabakitzea aldaketa gutxi batzuk, baina antzerkia izango dela iruditzen zaigu.

Lege berri horrek aurreko guztiak aintzat hartuko ditu eta ikaslearen ikuspegi hori garatzera etorriko da. Ondoren etorriko direnek barneratu egingo dute urrats hori eta ñabardurak aldatu: errebalidak kendu, eskola-kontseiluak berriz martxan jarri... baina guretzat errealtate beretsuan egongo gara. Batean zuzendariak dauka erabakimena, bestean kontseiluak, eta guk eskatzen dugu eremu zabalago batera eramatea erabakimena, eta partaidetza areagotzea.



# 0-3. Hezitzaileen formazioa

## Reggio Emilia

### Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako jauzia

0-6 urte arteko hezkuntza-ereduari jarraipena eman nahi izan diote Reggio Emilian eta Lehen Hezkuntza amaitu arte luzatu dute esperientzia. Santa Crocen, hiriko auzorik zailenetako batean —etorkin-kopuru handiena, langabezia tasa altuena eta arazo sozial gehien duen auzoan— eraiki dute Otik hasi eta 11 urte arteko lehen eskola unitarioa, Udalak hala erabakita. Orain dela 50 urte baino gehiago jaino eta arrakastaz garatu den Reggio Emiliako esperientziak 6 urtetik aurrera jarraipena izango du hala, haur-hezkuntzako zikloan ez ezik, goragoko adinetan ere, Loriz Malaguzziren filosofia oinarri duen praktika ezarriko baita.

Duela 10-12 urte hasi ziren Reggio Emilian Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren arteko elkarlan bideak urratzen. Lankidetzak hark fruituak eman ditu eta garai batean gazta pamesanoaren biltegia izandako eraikin batean ezarri dute 11 urtera artekoen eskola unitarioa, Scuola Primaria Loris Malaguzzi deiturikoa. Uneotan 190 haur daude orotara. Tes-



Maddalena Tedeschi pedagogo

tinguruaren didaktikan eta tailerretan oinarrituta ikasten dute bertan, testulibururik, pupitrerik, ikasgairik eta ordutegi hertsirik gabe, ikasle bakoitzaren nahieraren eta erritmoen arabera. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara igarotzeko jarraitu duten ibilbidearen berri eman dio *hik basi*-ri Maddalena Tedeschik, prozesu horretan parte hartu duen pedagogok.

Eztabaida luzearen eta hausnar-

keta sakonaren ondotik etorri da Lehen Hezkuntzarako jauzia. Ezaugarri bereziak izango ditu 0 eta 11 urte arteko haurrak hartuko dituen eskola unitario horrek? Edota izaera berritzailea eduki arren orain arteko esperientzien jarraipena izango da? Tedeschik azalduko eran, galdera nagusi horien bueltan gogoeta luzea egin ostean, Reggio Emiliako esperientziaren muina diren zenbait balio nagusi kontuan izatea erabaki zuten eskola berriaren sorreran. Balio horietan lehen eskola horretan lan egingo zuten **profesional guztien —irakasleak, sukaldariak, garbitzaileak...— formazio bateratua** izan zen. “Lehen Hezkuntzan ordura arte existitzen ez ziren figura batzuk sortu genituen, hala nola, pedagogoarena, atelieristarena eta irakasle ikertzailearena. Etengabeko formazioaren bitartez, eguneroko esperientziatik sortzen dugun dokumentazioaren gaineko hausnarketa eta ikerketa egiten dugu. Dokumentazioak berebiziko garrantzia hartu du formazio-prozesu

horretan guztian zehar, esperientzia berria denez, ez baikeneukan Lehen Hezkuntzaren inguruko tradizio dokumentaturik. Eguneroko jardunak eskaintzen dituen bizipenetan oinarrituz ari gara dokumentazio hori osatzen eta horren gainean egiten dugu gogoeta eta ikerketa”.

Eskola unitario honen sorreran azpimarratu beharreko beste balio bat **persona guztien identitatearen errespetua** da eta zeregin horretan espazioak berebiziko garrantzia hartzen du, Tedeschiren esanetan. Eskola eraiki ahal izateko, gazta-biltegi zaharraren berregituraketatik hasita, arkitektoak eta hezkuntzako profesionalak elkarlanean aritu dira: “Eraikinaren hasierako izpirituak gordetzen saiatu gara, eta biltegiaren espazio zabal horiek errespetatzen. Gero, eremu horretara egokitutako altzari espezifikoak diseinatu ditugu”. Reggio Emiliako gainontzeko ikastetxeetan bezala, plazak toki pribilegiatua hartzen du eskola honetan ere. Haur guztiak elkartzen diren eremua da, ideiak trukatzeko gunea, adin guztietako haurrak, langileak nahiz gurasoak topatzen diren lekua. Plazan ez ezik, eskolako beste eremuetan ere nahi eran mugitu daitezke haurrak ingurune batetik bestera. Bakar-kak, talde txikitik nahiz talde handian lan egiteko eremuak dituzte. Eguna nahiko luzea bada ere—8etan hasten dira eta 16:00etan amaitzen dute—, ez daukate ordutegi hertsirik eta denbora ez dute irakasgaika zatikatuta; kontrara, ikaskuntza-prozesuak jarraitortasuna du; haurrek ikerketarako testuinguruak izaten dituzte eskura, eta interesatzen zaien hori egiteko aukera izaten dute uneoro. “Adin ezberdinetako haurrak elkarrekin jarduteko espazioak ere badaude. Gure eskola oso bizia da eta uste dugu haur txikiek zaharragoengandik ikasten duten moduan, helduenek ere txikienetatik ikasten dutela. Guk haurren



arteko kooperazioaren eta talde-lanaren bidez pentsamendu kritikoa eta pentsamendu sortzailea sustatu nahi ditugu". Pedagogoa gaineratzen duenez, horrek zerikusi zuzena du curriculum ulertzeko moduarekin. Reggio Emilian ez dute uste curriculum egi absolutuak edota eduki itxiak eskuratzeko bitartekoa denik, baizik eta etengabe norbere buruari galderak egiteko erreminta da, modu pentsakorrean eta kritikoa, uneoro gogoeta bultzatzen duen tresna.

Eskola "posible den horren guztiaren" espazio gisa ulertzen dute Reggio Emilian. Egunaren hasieran, haur bakoitza bere erreferentziako ikasgelara joaten da (adin bereko ikaskideak elkartzen dira han) eta asanblada bat egiten dute lehenik. Handik aurrera ikasleak talde txikitan elkartzen dira edota bakarka jarduten dute, interesekoak dituzten gai horiek ikertzen. "Hurrek ez daukate testu-libururik, horretan gastatu beharreko dirua liburutegi aberats bat osatzeko erabiltzea erabaki genuen. Era guztietako liburuak daude bertan, eta ez bakarrik espezifikoki Lehen Hezkuntzara bideratuak".

**Curriculumaren interpretazio zintzoa** egitea izan da eskola berria eraikitzerako orduan hezkuntza-filosofia erdigunean jarri duten beste balioetako bat. Italian, estatuak emaniko curriculum gisara, "lanerako irizpideak" izeneko dokumentu bat daukate; jarraibideak dira eta ez nahitaez bete beharreko programazio itxia. "Orientabide oso irekiak dira, baina zoritxarrez, praktikan, irakasle batzuek hartu eta hitzez hitz segitu beharreko dokumentu itxibilakatzen dute". Egiatan, ordea, interpretazio aukera ugari eskaintzen dituela dio Tedeschik, era bateko zein besteko irakurketak egiteko modua ematen duela, eta, horren gainean, irakasle bakoitzak bere lan egiteko era pentsatu eta erabaki dezakeela.

Testuinguruan gauzatzen den proiektuan oinarritzen dute pedagogia eskola honetan, **testuinguruaren didaktika** deritzote horri, eta horixe da esperientziaren sorburuan kontuan izan zuten beste oinarriko balio bat. "Xedea da benetako testuinguru baten barruan erlazioan jartzea gurasoak, irakasleak zein haurrak, eta baita haiek dituzten egiazko galderak, desirak eta nahiak ere. Izate sistemiko eta holistiko batez ari gara". Tedeschik adierazi bezala, testuinguru didaktiko horretan hurrek eurek autogestionatzen dute euren denbora eta beraiek erabakitzen dute denbora hori zein proiektuan igaro. Ez dute ohiko koaderno itxirik erabiltzen, uztaidun artxibategiak baizik, hurrek era guztietako materialak nahi duten ordenan sar ditzaten, lanak mugitzeko aukera izan dezaten eta eurek sortutako edukiak berregituratzen joan daitezten. "Hurrek egiten duten hori berreraikitze beharra dute, eta euren kabuz egiten duten horri zentzua eman beharra, eta hala, euren buruekin birtopatzekoa. Zentzu horretan haur zein irakasleek egiten duten horren arrastoak uzteak sekulako garrantzia du, horrelaxe elkartzen baita bakoitza daukan, egin duen eta den horrekin". Norabide horretan, ahalegin berezia egiten dute teknologia berrien eta gailu digitalen erabileran, batetik arlo hori hurrei gertukoa zaielako eta haien interesekoa delako, eta bestetik, umearen gaitasun birtualak garatzen lagun dezakeelako, hau da, momentuko errealitatea gaintuz izan daitezkeen mundu posible horiek imajinatzen.

Scuola Primaria Loris Malaguzzi sortu aurreko eztabaidan kontuan izan zuten beste balio garrantzitsu bat **hezkuntzaren eta eskolako espazioaren izaera publikoa** da. "Ideia haiek guztiak familiekin partekatu nahi ditugu, baina ez haiek informatzeko, baizik eta gurasoekin elkarla-

nean eskola eraikitze helburuz". Hezkuntza-komunitate osoaren ekarpenak beharrezko dituen funtsezko eztabaidetako bat curriculumaren inguruko da. Komisio bat eratu dute gurasoen eta eskolako profesionalen artean eta curriculumaren gaineko hausnarketatik ateratzen diren oinarri pedagogikoak guztien artean erredaktatzen dituzte. Baina gurasoek ez dute maila teorikoa soilik parte hartzen, baita praktikoa ere: altzariak eraikiz, paretak margotuz, hurrekin tailerrak eginez, materialak sortuz...

Reggio Emiliako 0-11 urte arteko eskola berria aipaturiko oinarri horien gainean eraiki da, eta Tedeschik azpimarratutako moduan, balio horiek garatzeko aukera ematen du "baldin eta irakasleek euren lana etengabeko ikerkuntza bezala planteatzen badute". Eta erantzen du, horixe dela orain deskribatzen ari den eskola hau besteetatik ezberdintzen duen ezaugarri nagusia.

Lehen promozioa atera da dagoneko Reggio Emiliako eskola unitario honetatik, maila ertainera igaro dira irakasleak. Hango irakasleek diote, haur horiek, bereziki, lan kooperatiborako, talde-lanerako eta besteekin harremanak izateko erraztasunak dituztela. Ikasle horien jarraipena egiteko eta Lehen Hezkuntzatik eskola ertainerako jauzi hori dokumentatuta egon dadin, jarraipen batzorde bat osatu dute haur horien gurasoek.



AMURRIOKO SAN LUCAS REY IKASTETXEA

## Praktikarekin eta elkarlanarekin ikasten

**Amurrioko San Lucas Rey ikastetxeko LH 6. mailako ikasleek birziklatzeari buruzko proiektua landu zuten 2013-2014 ikasturtean. Ekimen arrunta litzateke, baina badu berezitasun bat: Europako beste herrialde batzuetako ikasleekin elkarlanean garatu dute proiektua, eTwinning izeneko plataforma digitala erabilia. Hainbat ikasgai teoriko “errealitatean kokatzen” lagundu die proiektuak. Emaitzak ikusita, ikasturte honetan ekimena 4. eta 5. mailetara zabaltzea erabaki du ikastetxeak. Espainia mailako lehenengo saria jaso dute eTwinning proiektuen artean eta Europa mailan ere proiektu onenen artean daude, finalean.**

Amurrioko San Lucas Rey ikastetxeko haurrek poloniar, italiar nahiz greziar ikasleekin elkarlanean lantzen dituzte hainbat proiektu. Horretarako aukera ematen die Europako Batasunak sustatutako eTwinning plataforma digitalak. 2013-14 ikasturtean, proiektu batekin hasi ziren lanean, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin, eta, eskola-komunitatean nahiz hortik kanpo izan duen arrakasta ikusirik, 2014-15 ikasturte honetan bi proiektu abiatu dituzte, oraingoan 4. mailako eta 5. mailako ikasleekin. Badirudi, beraz, bide horretatik jarritzeko asmoa dutela.

Hain zuzen, eskolan birziklatzearen gai landu nahi zuen ikastetxeko zuzendari eta ingeleseko irakasle Joserra Jimenez bilbotarrak, eta hortik hasi zen



dena. Izan ere, ideia hori eTwinning plataforma digitalean beste herrialde batzuetako irakasleekin partekatzea bururatu zitzaion. Proposamen interesgarria iruditu, eta Greziako, Italiako eta Poloniako ikastetxe banak ekimenean parte-hartzea erabaki zuten. Horrela sortu zuten Eurorecycling proiektua, Europako 4 herrialdeetako ikastetxeek elkarlanean. 2013ko udan gertatu zen hori, eta, gauzak horrela, 2013-14 ikasturtean jarri zuten martxan proiektua ikastetxeetan.

Amurrioko San Lucas Rey ikastetxeak erabaki zuen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin garatzea proiektua. Izan ere, adina eta jarduera zehatzak ikastetxe bakoitzak aukeratu zitzaizkeen, baina, ezinbestean, bi baldintza bete behar zituen proiektuak, Europako adituen eskakizunetaz: batetik, eskola-komunitate guztia inplikatu behar zen proiektuan; eta, bestetik, herrira zabal-

du behar zuten egiten ari ziren lana, eta, ahal izanez gero, herriko eragileak ere inplikatu proiektuan.

### **Materiak eta gaitasunak**

Proiektuarekin, materia zehatzak landu dituzte, proiektua eskola-curriculumarekin lotuz. Besteak beste, geografia, matematika, teknologia eta zientzia-gaiekin egin dute lan. Nabarmena izan da IKTen arloan eta ingelesean nola egin duten aurrera ikasleek; zuzendari eta ingeles irakasle Jimenezen hitzetan, “zenbait ikasgai errealitatean kokatzeko aukera” eman die proiektuak ikasleei. Izan ere, beste herrialdeetako ikasleekin bilerak egin behar dituzte, eta horiek ingelesez izaten ziren, eta IKT bidez, hala nola Skype eta Hangout aplikazioak erabilia: “Esaten diezu ingelesez bilera egin behar dutela Skype bidez eta, bat-batean, astebetean lortzen duzu urteetan lortu ez duzu-



na: konturatzen dira ingelesa erabilgarria dela, ez dela soilik liburuetakoa eta azterketetako kontua. Komunikatzeko behar dute eta prestatzen hasten dira, galdetzen ea hori edo hura nola esaten den zuzen... Oso lorpen inportantea izan da”.

Baina eduki zehatzak ez ezik, gaitasunak eta balioak ere landu dituzte. Adibidez, ideiak adierazten ikasi dute, baita elkarlanean jarduten ere. Gainera, beste kultura batzuekiko errespetua izaten ikasi dute, eta konplexuak kentzeko balio izan die esperientziak, Jimenezen esanetan: “Europa ez dela beste planeta bateko kontua” ikasi dute, eta ikusi dute beste herrialdeetako haurrek ere antzeko bizipenak eta zailtasunak dituztela.

### Guztien inplikazioa, giltzarri

Hori guztia lortzeko, askotariko jarduerak egin dituzte. Birziklatzea izanik proiektuaren ardatza, herrialde bakoitzeko birziklatzeko ontziak aztertu zituzten ikasleek, adibidez: zer koloretakoak ziren eta zer botatzen zen bakoitzean aztertu behar zuten. Ondoren, bilerak digital horietan, euskal ikasleek italiarrei kontatu zieten zer nolako ontziak dauden Euskal Herrian, eta Italian birziklatzea nola egiten den ikasi zuten, era berean; berdin gainerako herrialdeekin ere. Beste jarduerak batean, birziklatutako materialekin Gabonetako postalak egin behar zituzten, eta Amurrioko ikasleek beraiek birziklatu zuten papera. Uraren kutsadura maila ere aztertu zuten ariketetako batean, eta, horretarako, tipula erabili zuten neurgailu moduan.

Jarduerak horiek guztiak aurrera eramateko, ezinbestekoa izan zen Lehen Hezkuntzako 6. mailako tutoreen inplikazioa. Izan ere, Jimenezen hitzetan, “proiektu bat garatu nahi baduzu, lehenengo eta behin klaustrora eraman be-



Joserra Jimenez, ikastetxeko zuzendaria, nekazariek muntatu dieten berotegian.

har duzu, eta, ez baduzu lankideen inplikazioa lortzen, txarto zabilta. Zorionez, kasu honetan lankideek oso pozik hartu zuten proposamena”. Gainerako irakasleak ez ezin, ordea, “gurasaok oso inplikaturik egon dira, gogotsu ikusi ditugu. Seguraski beraien seme-alabak proiektuarekin gustura ikusi dituztela. Adibidez, ikasleetako baten aitak birziklatze-lantegi batean egiten zuen lan, eta hurrei hitzaldi bat ematera etorri zen”. Hain zuzen, hori zen proiektuari Europatik jarritako baldintzetako bat: inplikazioa.

Baina ez eskola-komunitatearena bakarrik, herriaren inplikazioa ere behar zuten; baita lortu ere. Izan ere, alkateari txosten bat aurkeztu zioten haurrek, birziklatzearekin lotuta herrian ikusten zituzten gabezien berri emanaz; besteak beste, hondakin organikoak biltzeko ontzia falta zela gogorazi zioten. Jimenezek dio “agian kasualitate” izango dela, baina ikasturte honetan organikoaren ontziak agertu direla herrian.

Gainera, inplikazio hori areagotzen doa urtez urte. Ikasturte honetan bi proiektu dituzte abian: bata, 5. mailako umeekin, elikadura osasungarriari buruzkoa; eta, bestea, 4. mailako umeekin, sudokuen bidez beste hizkuntza batzuk ikastekoa. Hain zuzen ere, elikadura osasungarriarekin loturiko proiektuaren harira, herriko nekazariek berotegi bat muntatu dute eskolatarian. Orain gurasaok ari dira ikasturte bakoitzerako hazitegi bat eraikitzen: haietan hazitakoa berotegian landutako dute ondoren. Nabarmenezkoa da bi proiektu hauetan ere Europako ikastetxe berekin jarraitzen dutela lanean, guztiak baitaude gustura emaitzekin. Ez da harritzekoa: eTwinning proiektuen Europako finalera igaro dira. Gai-

nera, proiektuak Espainia mailako proiektu onenaren saria jaso zuen, diziplina-anitzeko modalitatean.

Dena dela, izan dituzte sariez harago doazen errekonozimenduak: haurrak “pozik” bizi izan dute esperientzia, “aberasgarria” izan da haientzat. “Euro-recycling proiektuko ikasleak orain DBH egiten ari dira institutuan, eta hango irakasleak etortzen zaizkit galdezka, nonbait ikasleek eskatu egiten baitute horrelako proiektu bat martxan jartzeari”, dio Jimenezek, eta argi du hori dela bidea: “Trakasle moduan, liburua ireki eta ikasleen aurrean jartzen gara gure hitzaldia ematen, eta uste dugu umeei horrela ikasi egingo dutela! Nik uste dut gure intsegritatea dagoela atzean, liburutik ateraz gero ez dakigu zer egin. Gainera, horrelako proiektu batek lana dakar. Hala ere, emaitzak ikusita, konturatzen zara merezi zuela: niri orain haurrak ingelesez hitz egiten didate, eta konturatzen zara barnertzen ari direla, urrats handi bat egon dela”.



Materialak berrerabiliz eginiko belarritakoa.



Skype bidez egin dituzte bilerak.

DIWAN ESKOLAK

## Bretoien Kultura Berreskuratzen

**Oiartzungo Haurtzaro Ikastolak lankidetzaz eta truke harremana du Britainiako Diwan sarearekin eta bertako dinamika ezagutzeko aukera izan dute; bretoieran oinarritutako irakaskuntza-sistema eratzeko lanean ari dira.**

Bretainia (Breizh) Frantziako estatuko ipar-mendebaldean dago eta 3 milioi biztanle ditu. IX. menderako bretoia hitz egiten zen bertan eta nazio subirano baten hizkuntza izan zen XV. mendean. XX. mendeko lehenengo hamarkadan, Frantziako gobernuaren hizkuntza-politikak bretoiaren erabilera debekatzen zuen irakaskuntzan eta komunikabideetan, frankofonoak ez zirenek frantsesa ikas zezaten. Politika horren ondorioz, bretoiera zekitenak miloi bat lagun izatetik 400.000 hiztun izatera igaro ziren, eta desagertzeko arrisku larrian geratu zen hizkuntza. 1970. urtean, Frantziako gobernuak hizkuntza irakastea baimendu zuen eta bertako agintariak hizkuntza sustatzen hasi ziren.

Diwan eskolak Britainiako ikastetxe federatuen sare bateko kide dira (Fédération "Kevredad Diwan 44 Liger-Atlantel), hirurogeita hamarrek hamarkadan sortutakoa (1978, Nantes), eta bretoi hizkuntza eta kultura berreskuratzea dute funtsezko egiteko-tzat. Ikastetxe horietan Haur Hezkuntzatik (maternelle) Batxilergoraino (baccalauréat) luzatzen da irakaskuntza. Irakaskuntza-sistema bat sortzea da ikastetxe-sare horren helburua, bretoiera komunikazio-hizkuntza bezala erabiltzea ahalbidetuko duena "maternelle" hezkuntza-etapatik unibertsiteraino. Eskola-sare horretan beren ikasketak amaitzen dituzten ikasleek



**Pello Aramendi Jauregi / Rosa Arburua Goienetxea**

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

bretoieraz eta frantsesez jarduteko konpetentzia izatea lortzen dute. Proiektu pedagogikoak bretoieran egindako murgiltze progresiboan oinarritutako irakaskuntza baten alde egiten du, aniztasuna eta eskolaren, familiaren eta tokiko kolektiboen arteko lankidetzaz oinarritutako hartuta, eta irakaskuntza-sare publikoan integratzea aldarrikatzen du (zerbitzu publikoa). Gainera, beren kultura-nortasuna atxikitze borrokan ari diren Europako herriekiko elkartasunaren eta lankidetzaren aldeko apustua egiten du.

Egitura pedagogikoei dagokienez, Conseil Pedagogique bat dute ikastetxeek, hainbat irakasle eta gurasok osatutakoa. Ikastetxearen proiektuaren ildo nagusiak definitzen dira kontseilu horretan, emaitzak ebaluatzen dira eta bizikidetzaz arazoak kudeatzen

dira. Egunero ikastetxea kudeatzen duen organoa Comité Directeur izeneko batzordea da eta Directeur Generale kargua duen pertsona arduratzen da eskola-erakunde bakoitza zuzentzeaz. Irakasleak eta lantalde pedagogikoak (Équipe Pédagogique) ikasgelan garatutako irakatsi eta ikasteko prozesuak kudeatzeaz arduratzen dira. Ikasmaterialak lantzeaz arduratzen diren adituen batzorde bat ere bada.

Irakatsi eta ikasteko prozesuei dagokienez, astean 36 eskola-saio ematen dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (11-15 urte). 45 minutuko iraupena dute saioek, 5 minutuko atsedenearekin. Asteazkenetan ez dute eskolarik egun osoan. Lanaldia goizeko 9etan hasten da eta arratsaldeko 5:30ean amaitzen da, ordubeteko atsedenealdirekin bazkaltzeko. Irakasleek zein

ikasleek eskolan jaten dute. Eskolak oso intentsiboak dira eta kontzentrazio handiena eskatzen diete irakasleek ikasleei. Curriculum-garapenari dagokionez, adibidez, 12 urteko ikasleek 6 saio eskaintzen dizkiote bretoierari, 5 saio frantsesari eta beste hainbeste ingelesari, matematikari eta hezkuntza fisikoa eta kirol-hezkuntzari, 4 saio geografía eta historiari, 3 saio teknologiarri, 2 saio arte plastikoei eta asteen saio bat tutoretzari. Irakasleek xehetasunez prestatzen dituzte eskola horiek. Behemailako Bigarren Hezkuntzan, oso tratua berezia ematen zaie hizkuntzei: bretoiara, frantsesa, ingelesa eta alemana edo espainiera. Ikastetxe horiek lankidetzan aritzen dira eta trukeak egiten dituzte beste zenbait herrialdeetako eskolekin, hala nola Alemaniakoekin, Ingalaterrakoekin eta Euskal Herrikoekin (Oiartzun eta Tolosa).

Eskoletan, ariketa praktikoa ugari egiten dituzte ikasleek, eta irakasleak, aldiz, protagonismoaren zati handi bat bere gain hartzen du prestakuntza-pro-

zesuetan. Ikasleak bikoteka jarrita daude, denbora hobeto aprobetxatzeko. Irakasleak ez daude hiru eta lau ikasle elkartzearen alde, uste dutelako elkar-tze horiekin ikasle batzuek denbora galtzen dutela. Eskolaren 45 minutuetan jartzen den arreta maximoa da. Ikasgelako bizikidetzari dagokionez, irakaslearen eta ikasleen arteko errespetua bikaina da eta nabarmen deigarria da ikasleek duten parte-hartze handia. Irakasleek etengabe sustatzen dute ikasleen jarduerak ekitaldi praktikoen bidez: oso ohikoak dira proba eta azterketen zuzenketa, komentarioak eta gogoetak (ikasten ikastea).

Aniztasunari eman beharreko arretari dagokionez, zailtasunak dituzten ikasleei laguntzen aritzen dira zenbait irakasle, ikasgelaren barruan eta kanpoan. “Conseiller Principal d’Education” izeneko figura bat ere bada, gizarte-hezkuntzarekin lotutako eginkizunak dituen profesional bat. Eskola-delegatu diren ikasleen prestakuntza-lanak egiten ditu, beren eginkizunak be-

har bezala bete ditzaten. Era berean, etengabe dago harremanetan delegatu horiekin, haien familiekin eta irakasleekin bizikidetzaren egoera ebaluatzeko, eskola barruan zein kanpoan. Jolas-orduak eta eskolatik kanpoko jarduerak gainbegiratzeko lanak ere egiten dituzte profesional horiek. Harreman estua dute ikasleekin eta, sarritan, bitartekari-lanak egiten dituzte familia eta irakasleekin bizikidetzaren egoera zailak bideratzeko.

Europako hizkuntzen A2 mailari jarraiki Rennesko Akademiak egindako ebaluazioen arabera, Diwan Eskoletako (Diwan Skolaj) ikasleen konpetentzia hazten ari da bretoiari dagokionez. Era berean, PISA ikasgaien ebaluazioen emaitzen arabera, Frantziako batzuek bestekoaren gainetik daude. Ikastetxe horien arrakasta-faktoreetako bat, zalantzarik gabe, zera da: familiekin bere seme-alaben hezkuntza-prozesuan duten inplikazioa eta, bereziki, bretoi herriaren kulturaren eta nortasunaren sustapenean erakusten dutena.



Hautzaro ikastolako ordezkaritza, Diwan sareko eskoletako batean.

## Ikastetxeetan ama-hizkuntza kontuan hartu behar al da taldekatzeak egiteko garaian?



Etxeko hizkuntza euskara dutenak elkarrekin jartzea komeni da edo geletan banatzea hobea da? Ez naiz didaktikan aditua eta badakit eredu ezberdinak daudela gai honen inguruan. Ziur bietan ere, gauzak ondo egiten badira, emaitzak onak izan daitezkeela. Baina iritzia eskatu didatenez, hauxe proposamen bat.

### Ikastetxearen ikuspegia

Etxetik euskara jasotzen duten haurrek talde berean jartzea aukera ona izan daiteke testuinguru ez euskaldunetan eta mistoetan. Hau da, familien gehiengo nabarmen bat ez bada euskalduna, hobe banaketa egitea eta etxetik euskara jasotzen dutenak elkarrekin jartzea. Baina ez besterik gabe.

Eskolak hizkuntza-gaitasunari dagokionez helburu batzuk ditu. Azken helburua berdina izango da eskolako ikasle guztientzat, baina abiapuntua eta bilakaera ezberdinak izan daitezke.



**Iñaki EIZMENDI**  
EUSKARAREN ERABILERAN  
ETA TRANSMISIOAN ADITUA

Taldekatzean banatu egiten baditugu eta programazioa ondo lantzen badugu, hizkuntza-gaitasun aldetik gune indartsu bat dugu eta horiek besteek laguntzeko bide ere izan daitezke. Aldiz, nahastuta ari badira, minorizatua dagoen hizkuntza dutenak gela barruan ere minoria izatean, zailagoa izan daiteke beraien “babesa” edo laguntza lortzea.

Baina helburua ez da taldeka banatuta mantentzea. 5-6 urte dituztenetik aurrera irizpidea aldatu egin beharko genuke, eta, are gehiago, txikiak direnetik taldeen arteko nahasketak egiten hasi behar genuke. Hau da, abiapuntuko taldeen arteko nahasketak egin beharko lirateke txikiak direnetik. Batzuek besteengan eragitea nahi badugu, arlo batzuetan nahastu egin behar genituzke. Ez baditugu nahasten, eskola moduan arazo bat sortzen dugu: bi mailatako ikasleak ditugu, etxeko hizkuntza euskara dutenen taldekoak eta besteak.

Aldiz, hainbat arlotan behin eta berriz nahasten baditugu, eta egoera horietan irakasleek beraien jarduna ondo antolatzen badute eta eraginkorrak badira, hori izango da bidea elkar laguntzeko.

Noski, ondo planifikatu behar da hau guztia. Nolabait ere, gune babes-tu eta gune nahastuekin jokatzeari. Behin eta berriz. Eta nahasketa horie-

tan gauzak ondo egitea. Horrela bada, hasierako taldekatze hori onuragarria izan daiteke guztientzat, eta ez soilik etxeko hizkuntza euskara dutenentzat.

Bestalde, etxeko hizkuntza kontuan hartzea abiapuntu bat izan daiteke, baina ez helburua. Behin guztiek gutxieneko gaitasun batzuk garatu dituztenean, ez genuke begiratu behar zein den etxeko hizkuntza, baizik zein diren ikasleen gaitasun komunikatiboak. Eta agian etxeko hizkuntza euskara ez duten batzuk etxeko hizkuntza euskara duten batzuek baino maila hobea lortu dutela ikusiko dugu. Zer egin kasu horietan? Taldekatzeak egiterakoan gaitasunak kontuan hartu eta ez etxeko hizkuntza. Gaitasun hoberena dutenen garapenean jarraitu beharko dugu eta horien laguntza behar dugu besteen garapenean eragiteko. Hau da, 2-3 urterekin etxeko hizkuntza kontuan hartzea egokia da, baina 5-6 urtetik aurrera

gaitasun komunikatiboak hartu beharko genituzke irizpide moduan.

### Gurasoen ikuspegia

Gurasook taldekatze modu hau nahi izateak lotura du gaitasun komunikatiboekin, baina bereziki hizkuntza-ohiturekin. Seme-alabek euskaraz egitea nahi dugu lagunartean, eta etxetik euskara jasotzen dutenak talde ezberdinetan nahasten badituzte, gaztelaniarako joera gelditu ezina dela iruditzen zaigu. Beraz, eskolarentzat taldekatzeak ekar dezakeena edo gurasook nahi duguna, lotuta daude baina ez dira gauza berberak. Ikastetxe askoren kasuan euskararen erabilerara sustatzea oinarritzko helburuetakoa da, eta hor bat egiten dugu: baina irakasleen ikuspegitik ikasle guztien gaitasun komunikatiboak garatzea egongo da erdigunean eta gurasoontzat seme-alaben hizkuntza-ohiturak.

Seme-alaben hizkuntza-ohiturak

**Etxeko hizkuntza kontuan hartzea abiapuntua izan daiteke, ez helburua.**

**Hau da, 2-3 urterekin etxeko hizkuntza kontuan hartzea egokia da, baina 5-6 urtetatik aurrera gaitasun komunikatiboak hartu beharko genituzke irizpide moduan**



axola baldin bazaizkigu, oinarri on bat eskaintzeko ahalegina egin behar dugu gurasook. Euskararekiko aktiboak izan behar dugu. Eskolari bere lana ondo bete dezan eskatuko dugu, baina eskolaren norabide berean aritzea eta ahal dela elkarlanean aritzea lortu behar dugu.



## HEZKUNTZA IKASKETA ERDI-PRESENTZIALAK

Euskaraz eta zure erritmora egokituak

### GRADUAK ONLINE

Beste titulazio bat dutenentzat. Hezkuntza gradu osoa online egiteko aukera.

### EGOKITZE KURTSOAK

Irakaskuntzan diplomatuentzat. Gradu titulu berrira egokitzeko aukera.

### BIGARREN GRADUA / BIGARREN AIPAMENA

Hezkuntzan graduatuentzat. Hezkuntzan beste gradu bat edo beste espezialitate bat egiteko aukera.

Ernari izena informazio saiorako:  
[www.mondragon.edu/profesionalak](http://www.mondragon.edu/profesionalak)

Informazio saioa

**APIRILAK 23**

18:00etan

**ARETXABALETAKO  
CAMPUSA**



Gure seme-alabek euskara askorekin eta egoera askotan, eta, gainera,

eroso eta harro sentituz erabiltzea nahi baldin badugu, hizkuntza-



sozializazio prozesu horretan modu aktibo batean eragiten saiatu beharko genuke

Are gehiago, guraso bakoitzak bere aldetik egin dezake bide hori, edo gurasoak antolatu ere egin gaitzke. Bide honetan oso esperientzia interesgarriak garatzen ari dira testuinguru ezberdinetako hainbat herri eta ikastetxetan, seme-alaben hizkuntza-ohiturak axola zaizkigunok antolatu gaitezen eta eragin dezagun.

Hauxe da buruan izan behar duguna: seme-alabak sozializazio prozesu batean daude eta horren barruan hizkuntza-sozializazio bat ere ematen da. Euskara non eta norekin erabili ikasten dute, helduen jokabideetatik ikasten dute asko, hizkuntzen arteko hierarkia barneratzen dute, hizkuntzei balio ezberdina ematen ere ikasten dute... Hau da, gure seme-alabek euskara askorekin eta egoera askotan, eta, gainera, eroso eta harro sentituz erabiltzea nahi baldin badugu, hizkuntza-sozializazio prozesu horretan modu aktibo batean eragiten saiatu behar genuke. Labur azaltzeko: guk ezin ditugu erabaki seme-alaben hizkuntza-ohiturak baina oinarri on bat jar dezakegu.

Arlo hauek zaintzea oinarri on bat eskaintzeko modu egokia da:

**1.- Erreferentteak:** euskarazko bizipen asko eta indartsuak behar dituz-



te. Gauregun aukera asko ditugu, baina seme-alabek ez dituzte beti behar bezain eskura.

**2.- Bizipenak:** euskara bizipen asko eta positiboekin lotu behar dute. Zenbat eta gehiago, hobe.

**3.- Euskara aberatsa:** etxetik euskara aberatsa eskaini behar diegu. Hizkuntzarekin jolastu behar dugu eta gaitasun komunikatiboak garatzen lagundu. Zenbat eta euskara aberatsagoa, orduan eta abiapuntu hobea lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskara erabiltzeko.

**4.- Eredu egokiak:** hizkuntza-ohiturei dagokionez eredu egokiak ikusi behar dituzte helduen aldetik. Beraiek euskara asko erabiltzea eta euskararekiko aktiboak izatea nahi dugu (gaztelaniarako joera hartu duen lagunarte batean ere beraiek euskara mantentzeko ahalegina egitea, adibidez), eta horri begira gurasoon aldetik ere horrelako ereduak ikusi behar dituzte.

**5.- Mezu egokiak eta jarrerak:** eus-

kara balio indartsu eta erakargarriekin lotu behar dute. Euskara ere indartsua da, beharrezkoa, etorkizuneko, berritzailea, erakargarria... Bartzuetan asko kostatzen zaigu horrelako mezuak helaraztea, baina garrantzitsuak dira. Eta horretaz gain, zer egin lagunartean gaztelaniara jotzen badute? Euskaraz egiteko eskatu? Nola eskatu? Nola landu euskararekiko jarrerak? Atal honetan ere askotan galduta ibiltzen gara, baina seme-alabei behar bezala laguntzeko bide garrantzitsuak da.

**6.- Arnasguneak:** euskara erabili edo beste hizkuntza bat erabili aukeratu behar ez duten egoerak dira arnasguneak. Ikasgela arnasgune bat izatea nahi dugunez, eskolari eskatzen diogu etxeko hizkuntza kontuan hartzea. Baina arnasgune gehiago sortu edo bilatu ditzakegu.

Ikusten duzuen bezala, gurasook eskolei lana ondo egiteko eskatzeaz gain zeregin handia daukagu seme-alabei laguntzera begira. Prest gaude horretan aritzeko? Norbera bere kabuz? Eta antolatuta aritzeko? •

# argitalpenak



## Maddalenen usaina

Yolanda Arrieta eta Eider Eibar

### IBAIZABAL

Ordura arte etxeko txikiena izan denak titulua kendu berri duen jaioberriaz duen ikuspuntuaz, une delikatu horretaz ari zaigu liburua. Xabier bere aitarekin eta iritsi berri den arreba Maddalenekin parkera joatekotan da. Arreba Maddalenekin berriketan eta elkarrekin keinuka hasiko da Xabier. •




## Ez dut irudimenik, eta zer?

Noemi Gallego eta Leire Salaberria

### ELKAR

Arantxa irakasleak idazlan bat egiteko eskatu dio protagonistari, hamar bat urteko neskatuari. Irtenbiderik gabeko arazo baten aurrean sentituko da, hala koetan zurian gelditzen baita. Gauean eskolako bere koardenoarekin amets egingo du eta, bien arteko elkarriketa- ren bidez, arazoari irtenbidea aurkituko diote. •



## Orla Igeljale

Ole Lund Kirkegaard /  
Itzultzailea: Garbiñe Ugarte

### SUSHIBOOKS

Orla Igeljale herriko haurrak astintzen aritzen den gazte beldurgarri bat da. Orlak begietan hartuko du protagonista, eta abentura bat bestearekin kateatuko da obra honetan, Orlaren eta protagonistaren arteko deman. Herrira zirkua heldu, eta ezusteko irtenbidea iritsi arte. •



## Kepa Aceroren Surf Abenturak, Artikoa urtzen ari da

### JOKOGA INTERACTIVE

Klima-aldaketaren eraginaz mintzo da bideo-jokoa. Kepa Acero euskal surf-lari ezaguna Ipar Polara doa olatuak hartzera. Bere itsasontziak izozmendi bat jo du eta bertako herritarren laguntza behar du. Konturatuko da haien bizitza aldatzen ari zaiela klima-aldaketaren eraginez. Android eta iOS sistema-eragiletan erabil daiteke. •



## Neska baten hitza

Alfredo Gomez Cerda / Itzultzailea:  
Aitor Arana

### IBAIZABAL

Bere benetako nortasuna ezkutatzeko *Inorrez ezizenarekin* aurkezten zaigu protagonista. Bi erronka jartzen dizkio bere buruari: eleberri bat idaztea, eta bere bizitzan hain garrantzitsua izan zen pasartea irakurleari kontatzea. Idazle ofizioaren ezinegonak eta nerabezaroko gaiak nahasten dira. •



## Egun haizetsua

Anna Milbourne /  
Itzultzailea: Aiora Jaka

### TIARTTALO

Badakizu zerk astintzen dituen zuhaitzak eta zerk dantzarazten dituen lurreko hostoak? Egin dezagun ibilaldi bat egun haizetsu honetan; ikusiko duzu nolakoa den haizearen ahalmena eta indarra! *Letra Larriz* bildumako ale berria da honakoa, eta 5 urtetik gorako haurrei zuzendua dago. •

# hik hasi-ren proposamena

**‘BIZIPOZA AUZOLAN 22 elkarte, 22 ipuin, 22 abesti’ disko-liburua**

## Auzolanetik sorturiko 22 bizipoz-ale

Behar bereziak dituzten haurren eta horien familien alde lan egiten duten Gipuzkoako elkarteak babesteko, lanean dihardu Irrien Lagunak Klubaren Gizartekintza Elkarteak azken hiruzpatalau urteotan, eta bide horretan urrats berri bat egin berri du orain: 22 elkarten errealitatea ezagutarazteko liburu-diskoa eman du argitara, ‘Bizipoza Auzolan. 22 elkarte, 22 ipuin, 22 abesti’ izenburupean. Boluntario-sare zabal baten laguntza izan dute abestien hitzak nahiz elkarteei zuzendutako testuak idazteko; hala nola, bertsolariak, idazleak, irakasleak, eragileak... bildu dira bizipozaren auzolanera, elkartasunetik elkartasuna sortzeko.

Behar bereziak dituzten haurren eta horien familien bizi-baldintzak hobetzeko lan egiten duten elkarteei egitura eta proiektu egonkorak emateko asmoz, Gizartekintza Elkarteak sortu zuen Irrien Lagunak Klubak 2013an. Orduetik askotariko ekimenak egin dituzte, besteak beste, elkartasun-jaialdiak, ikuskizunak, abestiak... Jarduera guztietan, bi osagai egon dira ezinbestean: bizipoza eta auzolana. Otsail honetan beste pauso bat eman dute elkartasun bide horretan, eta, hainbat eragileren arteko auzolanetik, “Bizipoza Auzolan. 22 elkarte, 22 ipuin, 22 abesti” liburu-diskoa sortu dute.



22 elkarteetako ordezkariak eta Irrien Lagunak-eko kideak liburu-diskoaren aurkezpenean.

Auzolanetik sortua, bai, askotariko sortzaileak jardun baitira boluntario moduan liburu-ko testuak osatzen eta diskoko abestien letrak eta musikak sortzen. Liburuan, esaterako, Alaia Martin, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Jon Maia eta Maialen Lujanbio bertsolariak hartu dute parte, beste batzuen artean; baita Castillo Suarez, Kirmen Uribe eta Miren Agur Meabe idazleak ere, batzuk aipatzearen. Diskoan ere errepikatu dute sortzaile gehienek, hala nola Xabier Etxaniz Rojo idazleak edo Xabier Euskitze bertsolari eta kazetariak.

Gainera, Irrien Lagunak Klubak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Katxiporreta elkartearekin elkarlane-

an eman du argitara lan hau.

### **22 istorio eta abesti, 22 elkarerentzat**

25 elkarterek osatzen dute Irrien Lagunak Klubaren Gizartekintza Elkarteak, horiek dira elkartasun eta auzolan sarearen muina. Hain zuzen, sare horretako 22 elkarteri eskainia dago liburu-ko kapitulu bakoitza, baita diskoko abesti bakoitza ere; hortik liburu-diskoaren izena.

Gipuzkoako Kirol Egokituaren Elkartearen izenean Amaia Elizondok hartu zuen hitza liburu-diskoaren aurkezpenean, eta, nabarmendu zuenez, Gipuzkoako elkarten artean ere elkarlana sustatzeko balio izan du Gizartekintza taldearen sorrerak,



baita elkarrekiko ezagutza areagotzeko ere. Izan ere, “tristurak eta pozak goxoagoak dira partekatzen direnean”, Elizondoren arabera.

Hain zuzen, elkarte horiek transmititu dioten “bizipoza eta indarra” azpimarratu zituen Amagoia Mujika kazetariak, ipuinetako testuen egileak. Horrekin batera, disko liburuaren eta, oro har, Irrien Lagunak Gizarte-kintza elkartearen oinarri diren elkarlan eta elkartasun kontzeptuei balioa eman zien: “Pailazoeientzun izandiet asko emanda asko jasotzen dela, eta sentsazio hori izan dut. Ikasi dut bizitza gogorra ere izan daitekeela, eta behar handiak dituzten elkarte txikiak daudela”. Eta, jasotakoa partekatu nahi du berak ere: “Asko ikasi dudanaren sentsazioa dut eta, nik ikasi dudanaren zati txiki-txiki bat ikasten badu irakurleak, gustura geldituko naiz, jendarte koloretsu eta sanoago bat ariko baikara sortzen”.



## Bizipoza Auzolan

### 22 elkarte, 22 ipuin, 22 abesti

**‘Bizipoza Auzolan’ diskoa eta liburua eman ditu argitara Irrien Lagunak Klubak. Gipuzkoako 22 elkarteri buruzko ipuin bana jaso dute liburuan, eta beste hainbeste abesti sortu dituzte:**



#### Zenbat balio du?

10€-tan eskura daiteke liburu-diskoa.

#### Zein elkarte dira protagonistak?

1. ADEMGÍ Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte.
2. AFFESTA Euskadiko Tourette Síndromearen Elkarte.
3. AGIPASE Gipuzkoako Banandutako Gurasoen Elkarte.
4. AMPGYL Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexualen Gurasoen Elkarte.
5. ARNASA Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarte.
6. ASPANOGI Gipuzkoako Haur Minbiziadunen Gurasoen Elkarte.
7. AURRERA ATERA
8. BANAIZ BAGARA
9. BEROA Gipuzkoako Harrera Familien Elkarte.
10. BOCALAN BIAK BAT
11. CHERNOBILEN LAGUNAK
12. ETIOPIA UTOPIA
13. EUSKAL GORRAK
14. GEHITU
15. GIZAKIEN LURRA
16. GIPUZKOAKO KIROLEGOKITUEN FEDERAZIOA
17. GOERRIKO SAHARAREN LAGUNAK
18. GURE NAHIA Gipuzkoako Gaixotasun Arraroak Dituzten Haurren Aldeko Elkarte.
19. GURE SEÑEAK
20. KALE DOR KAYIKO Ijitoen elkarte.
21. PAUSOKA
22. UME ALAIA

#### Liburua nork?

Komiki gisa kontatzen dira 22 ipuinak. Hainbat sortzailek egin diote atariko ipuin bakoitzari (ikus testu nagusia). Ipuin horietako testuak Amagoia Mujika kazetariak osatu ditu, eta ilustrazioak, aldiz, Jose Anjel Lopetegik.

#### Diskoa nork?

Liburuan bezala, diskoan ere askotariko egileek osatu dituzte hitzak (ikus testu nagusian). Musikari dagokionez, batik bat Xabier Zabalak egin du.

# atzeko atetik



**ANABEL ARRAIZA**

ANTZEZLEA

Mila eta gutxi biztanle dituen herriarik mila eta asko pertsona biltzen zituena eta dituen ikastolarako bidaia egiten nuen egunero nire amarekin batera. 37km Lakuntzatik San Fermin Ikastolara. Hasieran biak bakarrik zaharrena naizelako baina geroago Egoitz eta Josu nebak eta baita Olatz ahizpa ere. Ama irakasle izan da bertan jubilatuta den arte, haur hezkuntzako Sokorro "andereñoa". Nire herriko lagunek herriko eskolan edo Etxarriko Ikastolan ikasten zuten bitartean gu Zizur Txikira joaten ginen egunero-egunero hutsik egin gabe.

16 urte eman nituen ikastolan eta oso oroitzapen onak ditut, ezin ezer

## Ikastolak batzen gaitu

txarrik esan. Famili handi batekin parrakatu dezaket ikastola. Gelakideak nituen bertan lan egiten zuten beste batzuen seme-alabak ere: Beñat, Ainara, Maite, Unai, Irune, Aitziber, ... eta bereziki Aitor.

Ikastolan bazkaltzen genuen bertan ikasten, irakasten, lan egiten genuen guztiek. Denek egoki eta osasuntsu jan genezan senar-emazte bikote batek zuen ardurua orduan: Pako eta Asun. Aitor, nire laguna, hauen semea da. Ikastolan bizi ziren beraiek Biktoreta Asier beste bi semeekin batera. Ikastolan bizi, bai. Beraien etxea BUPeko gelak zeuden eraikinaren goiko pisuan zegoen. Goizean goiz hasten ziren lanean mila eta askoren jana prestatzeko eta berandu bukatzen zuten eguna. Astez han bizi ziren eta asteburutan Iturrama auzoko beraien etxera joaten ziren.

Nik ere ikastolan lo egiteko aukera izaten nuen urtero. Edozeinek ez du pagotxa hori! Aitorren urtebetetze egunean (gogoan dut, apirilaren 14ean), amak etxera egiten zuen buelta eta ni bertan geratzen nintzen. Ikasto-

lan ez zegoen inor! Ikastolako eremu guztia guretzat! Hura zen festa! Futbol zelaia, frontoia, saskibaloiko kanasta guztiak libre, atzealdeko belardiak, patioak... Dena guretzat! Ondoren beraien "ikastolako etxean" bañua hartu, afaldu, telebista pixka bat ikusi eta ohera! Niretzat abentura ederra izaten zen hura. Edozeinek kontatu ezin dezakeena!

Gure BUPeko garaian, arratsaldeko 3retan bukatzen ziren klaseak eta ikasleak etxera joaten ziren bazkaltzera, baina amak arratsaldean ere lana zuenez, ni bertan geratzen nintzen Aitorrekin batera bazkaltzen.

Urteak pasa dira Ikastola bukatu nuenetik. Aitorrek bere bidea egin zuen eta nik neurea. Pasa den udan nire bi alabak kanpaldi batera joan ziren Izabara eta han egin zituzten lagunaren artean Iraia eta Irati ahizpak zeuden. Zer den bizia...! Iraia eta Irati Aitorren alabak dira.

Ikastolak batu gintuen, eta hogeitau urte pasa badira ere, alabek batu gaituzten honetan ikastolak batzen jarraitzen gaitu.

**"Umeari ez zaio agindu behar zerbait egiteko, zerbaitetan laguntzeko baizik"**

**Sam Goldstein**

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA 12. ZENBAKIA. 5 €

# Hazi Hezi

GAIA:

**Haurdunaldiaren jabe**

ELKARRIZKETA: ALFREDO HOYUELOS

**"Haur-eskolak umearen ongizatea bermatu behar du lehenik"**

EZTABAIDAGA!

**Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza goiztiarra**

Hazierak eta heziketak merezi dutelako [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

# II. Herri hezitzailea, eskola herritarra

jardunaldiak



## Leo PAHKIN FINLANDIAKO hezkuntza nazionaleko aholkularia Donostian

Apirilaren 24an eta 25ean Donostiako KURSAALen

HIK HASIren 20. ikasturtea ospatzeko, Finlandiako hezkuntza izango da jardunaldien hizpide nagusia. Harekin batera, Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutuko ditugu.



Apirilaren 24an:

### HERRI HEZITZAILEA

- Finlandiako Hezkuntza Sistema. **Leo Pahkin**.
- Hezkuntzaren garrantzia. **Koldo Saratxaga**.
- Haurren aisialdia euskalduna. **Lorea Agirre**.
- Herri-hezitzaileen sarearen aurkezpena.
- Gaztematika. **GFA**
- Euskal Herriko hainbat esperientzia.

Apirilaren 25ean:

### ESKOLA HERRITARRA

- Finlandiako ikasleak nola hartzen diren bere osotasunean. **Leo Pahkin**.
- El Martinet, Kataluniako eskola berritzaileen esperientzia. **Montserrat eta Lidia**
- Euskal Herriko hainbat esperientzia.

Informazioa eta izena ematea: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) helbidean